


kutsidazu bidea, ixabel
ez gure izenean
kirmen uribe
anjel lertxundi



betagarri





Euskaldunagoa? Oso zaila dago.

Independenteagoa? Ez da erraza.

Pluralagoa? Zein bezain plurala?

Hobea? Hoberena zen.

baina
hobetuko dugu
zure laguntzarekin

berria berri

www.ektsa.net Tf: 635 733 385 · 635 733 386

adi

geu aldizkariko

I. harpidetza maratolari



*oinarriak: banatutako orrian

ahorik aho:



8-9.
orr.

ANJEL ALKAIN:
KUTSIDAZU BIDEA IXABEL



10-11.
orr.

BETAGARRI



12-13.
orr.

Gerraren aurkako plataforma

gaika:



16.
orr.

Xagumendi egitasmoa

17.
orr.

BAI EUSKARARI

KIRMEN URIBEREN POESIAREN
NEW YORKERAKO BIDAIA

18-19.
orr.

Matrikulazioa
Inguma egitasmoa



21.
orr.

DIOCESANAS-MOLINUEVO

GAINERA...

• Han-hemenka (4-7. orr.):

Iritzian: ruben sanchez, bertsolaria. kronika:

arabako bertsolari txapelketa. kaleak dio:

komunikabideak. araba bixotzian. izena. ikusi:

korrika

• Euskaltasunean lagun (15. orr.): lexuri ugarte

• KulturAisialdiari so (22-35. orr.):

AGENDA (23). IDAZLEEN GURPILA (VI)-EDU

ZELAIETA: "plan aldaketa" (24-25). HISTORIA

ZERTZELADAK-GUSTAVO BARRON: -:

urkabustaizko "goikoama" baseliza. bertako

toponimiari buruzko zenbait ohar (26-27). ARTE

TXOKOA-NEREA LEKUONA (28-29). naturaren

isladak (29). bidaiak: Eklipsea 99 (30).

sukaldaritza (31). denbora-pasa (31). artista

berrien txokoa (32). geu-ren gunea: ANJEL

LERTXUNDI, IRAKURLE KLUBA (33-34). komikia

(35).

Azala ...

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua

Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne
begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain,
josune verez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa: e.b.z.

Testuen orrazketa-zuzenketa-

osaketak: e.b.z.

Maketa: patirke sanz eta david alvez

logoa: io grafix

komikia: iñigo sarasola

Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, abarrots, ruben sanchez, arabako bertsozale
elkartea, edu zelaieta, gustavo barron, arte eta lanbide
eskola, diocesan-mendizorrotza ostalaritza eskola, ania
ibisate, oskar ugarte eta luma aldizkaria

Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500


LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Foru Aldundia
Kultura Saila



Betagarriekin
arnasa hartuz

argazkia: betagarri


Ruben Sanchez
BERTSOLARI ETA EUSKARA IRAKASLEA

GASTEIZKO EUSKARA

Ba al dago Gasteizko euskararik? 'Bat' behintzat ez dut uste. Eta egon beharko litzateke Gasteizko euskara 'bat'? Nik baietz uste dut (bat guztien bateratzailea-edo).

Kontua ez da akaso 'behar'; berez etorriko zaigu euskara hori baldin eta euskaldun komunitate indartsu bat sortzen badugu. Hizkuntza bat bizi-bizirik dagoen lekuan hango hizkera sortzen da berez, eta nahitaez esango nuke nik. Baina tokian tokian faktoreak ezberdinak dira.

Herri euskaldun batean euskalduntzen den pertsonak euskara batua eta bere herriko hizkera, biak, ikasi ditzake. Inguru erdaldunenetan hori ezin da hain erraz egin, baina hala ere, inguru batetik bestera ere aldatzen da asuntua. Bilbon euskalduntzen den pertsonak batua ikasiko du, baina hizkera bat bereganatu nahian badabil badu nora begiratu: bizkaiera edo mendebaleko euskara (badakit herriz herri asko aldatzen dena, baina tira). Berdin gerta daiteke Iruñeko, Baionako edo Tuterako euskaldunberri batekin. Baina zer gertatzen da Gasteizko euskaldunokin?

Lehen esan dut hizkuntza bizi-bizirik dagoen lekuan hango hizkera sortzen dela. Ez da bakarrik kontu komunitarioa, norbanakoak ere sentitzen du hizkeraren beharra hizkuntza bere egin nahi duenean: hizkuntza horrekin jolastu nahi du, ziriak sartu, txorradak esan, alperrean ibili... bere hizkera nahi du. Baina Gasteizen ez dakigu nora begiratu, gure Bizkaiko irakasleei, giputzei, naparrei, lapurtarrei...? Nongo hizkerari?

Gaur egun Araban bizirik geratzen zaigun euskara Mendebaldekoa da, baina inguru hura txikiegia da eta ez du eraginik Gasteizen. Gustatu ala ez. Eta orduan zer? Nik ez dut erantzuna,

baina suposatzen dut iturri nagusia batua izango dela, hizketarako moldatua.

Badaude fenomenoak euskal herri askotan gertatzen direnak: fonologikoak ('eztu(e/o)t' esaterako), bokalen konbinazioarekin jolastea adibidez ('kanbixuak', 'ikusiye', 'telefonu', 'tristek', 'etxia'...), edo 'zen'-en ordez 'zan' esatea adibidez nongoa da? edo 'dela'-ren ordez 'dala'. Uste dut guk ere badaukagula hizkuntzarekin jolastea eta gure hizkera egin (beno egia esan hizkuntza hitz egiten den momentutik hizkera da ia, baina tira). Jakina, nik ez dut esango zer hartzea den 'zilegi', edo 'ondo' dagoen. Gainera uste dut pixka bat malgu jokatu behar dugula kontu honekin.

Adibidez gasteiztar batzuek 'det', 'deu', 'naz', 'etxetikan', etab. esaten dute (hau da, ez direnak horren fenomeno orokorrak baizik euskalki batekoak edo bestekoak). Bokalismoarekin esaterako batek pentsatu lezake: 'Ondarruko 'telefonu' ez dugu hartuko baina telefonoa-ren ordez 'telefonua'?'. Oso euskalki batekoa dena txarragotzat jotzen da baina 'txarto' dago?

Nik onar nezake gasteizko euskara bat 'etxetikan' etorri naz' esaten duena, badakit zaila izango dena hori bezalako euskara batek arrakasta izatea, baina hori ez bada ere, badakit hemen sortuko dugun euskara jende askori etzaiona gustatuko. Berdin da, azkenean errealidadea nagusitzen da beti, badaude pertsonak atzokoa gaurkoa baino hobe edo baserrikoa kalekoa baino hobe dela pentsatzen dutenak beti. Baina gaurko euskara ez da atzokoa ezta biharkoa ere, aldakorra da eta aldakorra ez bada da hilda dagoelako.

Beraz, badakizue euskara hartu eta erabili itxuraldatzeraino. Gasteizko euskara sortu dezagun bide bakarra mingainekoa da, bide hori hartuta laster sortuko da/dugu Gasteizko euskara.

arabako bertsozale elkarteak

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2003: 2. KANPORAKETA

Larunbatean ospatu zen Bastidako Kultur etxean, Arabako Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa. Iñaki Viñaspre, Iker Ibarrola, Andere Arriolabengoa, Ane Zelaia, Alberto Martinez eta Zigor Enbeita izan ziren Olatz Perea gai-jartzailearen aginduetara jardun zirenak.

Aretoa bete zuten bertsozaleek saio polita ikusteko aukera izan zuten. Zigor Enbeita izan zen lehen postua lortu zuena, 143,5 punturekin. Bera izan zen ofiziotan eta bakarkako lanean nagusitasuna erakutsi eta bertsozaleen txalorik beroenak jaso zituen. Iñaki Viñaspre, 129,5 punturekin izan zen bigarren eta Alberto Martinez hirugarren, puntu kopuru berberarekin. Iñaki Viñasprek ere erakutsi zuen baduela zer esana nahiz eta hasierako ofizioan makal xamar jardun. Laugarren Andere Arriolabengoa izan zen 127 puntu lortuz. Ane Zelaia eta Iker Ibarrola izan ziren sailkapenean hurrengo, 108 eta 97 punturekin, hurrenez hurren. Saio alaia izan zen eta urduritasuna soma zitekeen arren ale ederrak entzun ahal izan ziren.

Finalaurrekorako txartela, Zigor Enbeitak, Iñaki Viñasprek, Alberto Martinezek eta Andere Arriolabengoak eskuratu zuten Bastidan. Hauekin batera Dulantziko kanporaketako lehen biek ere lortu dute, Iker Agirre eta Irati Andak. Beste sei bertsolari ere, lanean hasi beharko dira finalaurreko saioetan, iaz finalista izandako Manex Agirre, Rikardo Gonzalez de Durana, Juan Mari Juaristi, Oihane Perea, Ruben Sanchez eta Asier Otamendi txapelduna hain zuzen ere. Saio hauek Legutio eta Amurrión jokatu dira, Maiatzaren 10 eta 17an.

Maiatzaren 10ean Legutio Kultur Etxean

18:30etan

Asier Otamendi (Gasteiz)
Oihane Perea (Gasteiz)
Ruben Sanchez (Gasteiz)
Iñaki Viñaspre (Abetxuko)
Iker Agirre (Aramaio)
Andere Arriolabengoa (Aramaio)

Maiatzaren 17an Amurriónko Zaroabe institutuan

18:30etan

Manex Agirre (Aramaio)
Rikardo Gonzalez de Durana (Oreitia)
Juan Mari Juaristi (Gasteiz)
Zigor Enbeita (Abornikano)
Alberto Martinez (Gasteiz)
Irati Anda (Gasteiz)

*Autobusak daude (ikus. agenda)
Informazio gehiago: www.bertsozale.com



argazkiak: karlos fdz. de betoño
iturria: XDZ

BIDAIK

testua eta argazkiak:
ania ibisate eta oskar ugarte

Urteko garai honetan hasiak gara oporretan edota oporrekin pentsatzen. Asko izan zarete seguruenik, Aste Santua edota Prudentzio Deunaren festak aprobetxaturik kanpoan izan zaretenak jada. Beste batzuek, aldiz, uda garaia iritsi artean itxaron beharko duzue. Dena den, estatistikek diote geroz eta jende gehiago mugitzen dela alde batetik bestera. Horren kariaz kalera irten gara:

1. Oporretan joateko, zein izaten duzu garaia?



MAIKA LOPEZ DE URALDE
Funtzionaria

-Aste Santuan zein udaran egin ohi ditut oporrak. Gustatuko litzaidake beste hilabete batzuetan egitea, baina gauzak horrela dira oraingoz.

-Batik bat hondartzara. Besteak beste, Salou, Benidorm, eta horrelako lekuetan ibiltzen naiz. Eguraldia behintzat ona izaten da.



GORKA LPZ DE LUZURIAGA
Muntatzailea

-Ez naiz oporretan inora joaten. Agian astebukaera batean edo, baino ez besterik.

-Joatekotan, asteburuko plana izanik, gertu.



SUSANA BORGE
Administraria

-Aste Santua probetxatu beharra dago. Gero udaran ere hamabostaldi bat egin ohi dut kanpoan.

-Aste Santuan beti Kantauri aldean, eta udaran bidaia luzeagoa izan daiteke. Munduko edozein txoko proposa da. Gauza desberdinak probatzea gogoko dut.



JOHN HIRD
Ingeles irakaslea

-Batez ere udara, baina Aste Santua ere aprobetxa dezaket, irakaslea izanik...

-Momentuz urtero txoko desberdinetara. Ezagututako bereziena Bosnia-Herzegovina izan da. Oso gomendagarria.

Izena

Kutsidazu bidea, Ixabel

Joxean Sagastizabalek 1994an idatzitako liburu ospetsua aurten antzezlan bilakatuta Anjel Alkain aktore eta zuzendariaren eskutik.

Gasteizen ikusgai hilaren 29an, ez galdu aukera!



gasteizek, ohi bezala, harrera galanta egin zion **korrikari**

Geu elkarteak eta Geu aldizkariak Egunkariaren
omenez egin zuten korrika,
lekukoa Egunkariari emanaz



Araba bixotzian



Geu&Gauekoak-en ekimenez, “KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL”

josune velez de mendizabal

argazkiak: gorringo

Geu Elkartea eta Gauekoak-en ekimenez, Joxean Sagastizabalek idatzitako “Kutsidazu bidea, Ixabel” komediaren antzerkirako egokitzen dator Gasteiza maiatzaren 29an. Anjel Alkainek gidatutako Gorringo Antzerki Taldeak protagonista dugun euskaldun berriak baserri arrotzean igarotzen dituen pasarte barregarrienak hurbilduko dizkigu oholtzara. Jada sarrerak Principal Antzokian dira eskuragarri 12, 9 eta 6 eurotan (30 urtetik beherakoentzat % 50eko beherapenaz). Ez ezazue galdu XX. mendeko literatura eta XXI. mendeko antzerkiaren arteko uzta bikain hau!!



JOXEAN SAGASTIZABAL, “Kutsidazu bidea Ixabel” liburuaren egilea

“Ni euskaldunen semea naiz, Eibarren jaioa; txikitan euskaraz jakin bai eta gero zeharo ahaztutakoa. Hemezortzi bat urterekin ekin nion ikasteari, euskalduntze lehen mailan (eta “Euskalduntzen” metodoarekin) hasita. Gure Jaunaren 1976ko urtean udapasa joan nintzen baserri-baserri batera, jendeak “benetan” nola hitz egiten zuen jakiteko asmoz. Baserrian lanean jardun (ahalik eta gutxiena molestatzeko, egia esanda) eta Alkizan klaseak neuzkan. Uda hartan ikusitako eta imajinatutakoekin osatu nuen, halako batean, ‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ kontakizuna”, hitz hauekin azaltzen du Joxean Sagastizabalek komedia arrakastatsu honen sorreraren oinarria.

1.994. urtean idatzitako izan arren, jasotako ospeak antzeztera ere bultzatu du liburua. Sagastizabalen aburuz liburu honek lortu duen arrakastaren arrazoia honako hau da: “Nik badut gaitasun bat, jendea barre eragiteko; lagun artean etengabe mozolokeria ustez barregarriak esaten jarduten duten pertsona horietakoa naiz. Gaitasun horrekin eta gai on bati helduz asmatu egin nuen, nonbait, eta horixe da, dudarik gabe, liburuaren arrakastaren zergatia”.

Bere azken lana noizko eta honako hau erantzuten du: “Aspaldi honetan nobela batekin ari naiz, bare elbarriaren erritmoan denbora faltaz. Ez da erraza argumentua laburbiltzea, abiapuntua Australiako aborigenen mundu mitologikoan du; mende honetan daukat bukatzeko esperantza”. Umore handiko gizona.



ANJEL ALKAIN, antzezlanaren aktore eta zuzendaria

Anjel Alkain, guztiok ezagun diren Jose Antonio Arana, Bittori, Argiñano, Cañete sarjentua eta

Dolos antzerki pertsonajea da, besteak beste. Antzerki munduan aspaldian murgilduta egon arren telebistak ezagutarazi du batik bat tolosar honen artea. Oraingoan oholtzaren gainean ikusiko dugu Gasteizen Gorringo Antzerki Taldeak aurkezten duen "Kutsidazu Bidea, Ixabel" antzezlanean.

-“Kutsidazu bidea, Ixabel” martxoan jarri duzue martxan. Nola bururatu zitzaizuen liburu honen antzez-lana egitea?, zergatik hautatu zenuten hau bera eta ez beste bat?

Zazpi urte daramatxagu antzerki munduan, baina beti umeentzako gauzak egiten eta erabaki genuen

momentua zela aurrenez helduentzako lana egiteko. Taldekoak bildu eta argi genuen umorea egin nahi genuela eta baita euskal literatura ere. Segidan denon ahotik atera zen “Kutsidazu bidea, Ixabel”. Zergatik? Batetik, Gorringo taldea Tolosaldekoa delako eta liburu bertan kokatzen da eta, bestetik, gure hizkera antzeko batekin egiten delako..., hortaz, pentsatu genuen errazagoa egingo zitzaigula. Baserritarrek ez bagara ere, ezagutzen dugu baserri mundua gure aitona-amonengatik. Honetaz gain, umore puntua gustatzen zaigu, uste dugu beharra dagoela gure buruaz barre egiteko eta hori dena euskaraz egiteko batez ere.

-Zenbat denbora behar izan duzue liburuaren pasarteak antzerkira egokitzeke?, zer da liburutik isladatu duzuen?

Nagore Aranbururi, Sorginen Laratza-n

gidoigile eta antzerki lanean nirekin ibiltzen denari, antzerkira egokitzeke esan nion, eta bi hilabetetan egokitzen ari zinen. Gainera, mantendu du dexente liburuan agertzen dena nahiz eta hainbat egoera apur bat gehiago exageratu ditugun.

-Joxean Sagastizabali zer iruditu zitzaion ideia? Antzez-lana prestatzen ari zinetela proposamenak edota iradokizunak egin al zituen berak?

Joxeani deitu nion baimena edo bedeinkapena eskatzeko eta ilusio handia egin zion. Ezagutu eta horretarako egokiak ginela iruditu zitzaion. Berak gogoan zeukan lana antzerkira pasatzeko, baina badirudi ez zuela bere ideiarekin bat egiten zuten antzerki talderik topatzen. Antzez-lanean eszena bat agertzen da liburuan agertzen ez dena: Juan Martin baratzara bidaltzen dutenekoa, alegia. Joxeanek eszena hau azkenean ez zuen liburuan sartu, baina guri kontatu zigun eta sartu dugu.

-Gorringo antzerki taldea gaztea da, ezta?

Bai, duela urtebete sortu genuen. Lehen Hankagorri taldea ginen eta umeentzako kale antzerkia egiten genuen. Orain datorren lana ere prestatzen ari gara. Uztailaren 15ean estreinatuko dugu: “Tristeak kontsolatzeko makina”, Anjel Lertxundirena. Arrakasta izaten ari gara, batetik, lana ezaguna delako eta aparte tipo bat dagoelako, zeinaren

aurpegia ezaguna den telebistan agertzeagatik (barreak)...

-Horren harira, Anjel Alkain askok ETBko saioan ezagutu dugu, baina non aritu da ordura arte?

Denetatik egin dut, antzerkiaz ezin zaitezke bizi eta... Duela hamar urte bikoizketa munduan hasi nintzen, baita antzerki munduan ere, kale-antzerkia, ipuinak kontatzen...; beti honen inguruan baina gauza desberdinak egiten. Gero, Sorginen Laratza izan da nire burua ezagutarazteko aukera eman didan programa.

-Komedian ikusi zaitugu orain arte, dramen ere aritu zara?

Ez, egia esan, ez... Dramak profesionalki ez, baina antzerki eskolan nengoenean horrelako muntajeak bai egiten genituela... Zaila da drama egitea eta gainera nahikoa drama daukagu herri honetan... Aparte jendeak barre egin nahi du, ez du gehiegi pentsatu nahi eta hori da ikusi nahi duena.

-Zure pertsonajerik kuttunena?

Ba... nik uste dut Jose Antonio Arana... lazko urtean “boom” bat izan zen, jendeak oso gertu ikusten zuten pertsonajea zelako; jende askok pentsatzen zuten Barandiaran zela, eta ez zen, ezta pentsatu ere... Dena den, Bittori bera edota Nekane eta Dolos ere asko gustatzen zaizkit..., baina bat aukeratzekotan Jose Antonio Arana aukeratuko nuke.

-Gasteiza maiatzaren 29an zatotze. Oraindik ere norbait balego Sagastizabalen liburu irakurri ez duenak zer ikus dezake egun horretan Principal antzokian?

Nik ziurtatzen diot ordu eta laurdenean, harroa ematen badut ere, barre egingo duela eta batez ere oso barre sana egingo duela; egoerak barregarriak direlako eta gainera uste dut gaur egun badela nahikoa, barre egitea gero eta zailagoa baita. Eta esango nioke antzokira ondo pasatzeko ideiarekin joateko eta farra aseguratuta daukala.



BETAGARRI: "Saririk onena jendearen erantzuna jasotzea da"

testua: edurne begiristain

argazkiak: betagarri & edorta

Zuzeneko emanaldietako taldea dela esan daiteke; hala uste dute beraiek eta hala pentsatzen dute kontzertuetara doazen milaka jarraitzailek ere. Duela urte erdi *Arnasa Hartu* izeneko lana kaleratu zutenetik han-hemenka dabilta, kontzertuak

eskainiz, arnasa estuka. Eta horrela jarraitzeko asmoa dute, gainera, bi urte barru zuzeneko emanaldien bilduma bat kaleratuko baitu talde gasteiztarrek. Iñaki Ortiz de Villalba abeslariak kontatu digu.

Oraindik zuen azken lana erosi ez duenari esango al zenioke zer aurkituko duen *Arnasa Hartu* diskoan?

Aurreko lanak baino rockeroagoa dela esan daiteke. Desberdina da, orain arteko lan guztien zatitxoak dituen, betiko ska, pop kutsua, errepika punkiak ditu..., beraz, beste diskoetan topatu dezakegunaren laburpena dauka honek, baina ez gara inolaz ere musika mota zehatz bat egitera joan. Hala sortu da eta kitto!

Arnasa hartzeko garaiak al dira hauek?

Bai. Txapapoteak kaltetutako galiziarrek arnasa hartu behar dute, Egunkariako langileek arnasa hartu behar dute...; azken finean, Euskal Herriko abertzaleok arnasa hartu beharko dugu bihar zer datorkigun ez baitakigu. Horixe esan nahi du izenburuak.

Letrak ere bide beretik doazela esan daiteke, alegia, egoera politikoak eta sozialak isla handia dutela, ezta?

Bai, abesti batzuetan diskoaren mezua argi eta garbi antzematen da, eta beste batzuetan, aldiz, metaforak erabiltzen ditugu gauzak adierazteko, nahi duenak mezua harrapa dezan.



Jira Italia, Suitza eta Alemanian

Aste Santuan jiran ibili dira Betagarrikoak, Italia, Suitzan eta Alemanian, toki guztietan egundoko harrera jasoz, bueltan, ondorioz, izugarri kontent eta ase etorri direlarik. Erroman 8.000 lagunentzat prestatua zegoen karpa batean jo zuten, Banda Bassoti, japoniar talde bat eta abarrekin batera. Bergamon ere izan ziren, gune okupatu batean. Bolognan Gora Euskadi Party batean jo zuten, areto ospetsu batean. Zurich-en hunkigarria izan zen neska gazte batzuk Betagarrikoengana hurbildu eta euskaraz mintzatzeko esan zietenean: oso hizkuntza polita zela, ikasteko gogoia, eta halakoak adierazi zituzten jarraitzaile amorratu hauek... Azkenik, Alemanian, Kiel-en eta Hanburgo-n, aretoak bete zituzten (Hanburgo-n kaleetako hormak txartelaz josita zeuden; badirudi jarraitzaileen esparrua handituz doala bertan. Honez gain, Suitzan eta Alemanian enpresa banatzaile bat martxan dago euren lana harat-honat mugitzeko, eta japoniar bat ere atzetik ibili zen diskoa ere Japonen ateratzeko. Jira bizia eta bitxia, eta balorazioa, hortaz, biziki positiboa!



Sentimenduak, gazteei zuzendutakoak, egungo estatus politiko eta sozialarekiko kritika, faxismoaren aurkako aldarria...

Nolakoa izaten ari da lanaren harrera?

Oso ona, batik bat Estatu mailan. Bai Katalunian, bai Galizian eta bai Madrilen asko saltzen ari da. Euskal Herrian ere salmenta onak ditu, baina agian aurreko diskoek baino gutxiago. Hala ere, goiz samar da diskoaren eboluzioa ikusteko. Gainera, garrantzitsuena da diskoa zuzenean defendatzea, horrek ere diskoa erostera animatzen baitu jendea.

Disko berriarekin batera, bestelako berrietasuna ere ekarri duzue: Zure ingurua abestiaren bideo bat grabatu duzue-eta. Nolakoa izan da esperientzia?

Unaik (tronpetajolea) izan zuen bideoa grabatzearen ideia, eta beraren bitartez lortu genuen behar genuen material guztia. Garate grabazio estudioetan egin genuen, baserriaren goiko pisua nahiko aproposa delako halako gauzak egiteko. Bideoa nahikoa sinplea da, travelling bat besterik ez baitugu erabili. Bi ume agertzen dira xakean jostatzen; etorkizuna islatu nahi dute, eta etorkizun hori apurtu eta pikutara bidaltzen

dutela. Etorkizuna umeengan dagoela islatu nahi izan dugu.

Bideo arrunta dela diozu, baina Enderock musika aldizkariak (baita Euskadi Gazteko Gaztea Sarietan ere) egiten duen lehiaketan bideo onenetarikoen artean izendatu zaituztete, Fermin Muguruza eta Ekonekin batera. Halakorik espero al zenuten?

Egia esan harrituak geratu gara, guk bideoa promoziorako baliagarria izan zitekeelako bakarrik atera baikenuen. Baina positibotzat jotzen dugu. Alabaina, niretzat, saririk onena da kontzertuak ematen jarraitzea, jendeak erantzun ona izatea eta gurekiko apustua egiten jarraitzea. Ni ez naiz taula gainera igotzen diruagatik, behean erantzun bat dagoelako baizik, eta ikusten dudalako oraindik jendearen onespina badugula. Bestela, utziko nuke.

Jendearen fidelotasun horrek bultzatuta, akaso, hamaika urte daramatza Betagarrik musika munduan. Espero zenuten horrenbeste denbora irautea?

Ez, ez genuen inolaz ere halakorik espero.

Zein da, bada, gakoa?

Maila pertsonalean eta taldekideekin

oreka mantentzea, publikoa eta taldekideen arteko kimika hori ez apurtzea, zuzeneko emanaldiekin, esaten duzunarekin, diskoen estiloarekin... oreka mantentzea. Guk jarraitzen dugu batez ere jendeari zuzeneko gustatzen zaiolako, erantzun oso ona jaso ohi dugulako leku guztietan, eta jendeak bizi egiten dituelako gure zuzenekoak; eta baita guk ere. Hots, nik barruko hori kanporatuko ez banu, ziurrenik ez nuke ezer helaraziko, eta guztia bertan behera geratuko litzateke. Azken finean garrantzitsuena da egiten duzuna sinestea eta sinestaraztea.

Eta, bukatzeko, etorkizunari begira zer egiteko asmoa du Betagarrik?

Gure asmoa da bi urte barru inguru zuzeneko bilduma bat egitea. Aurreneko diskotik azkenera bitarteko abesti onenekin zuzeneko grabatuko dugu. Ziur naiz zuzeneko disko horrek ongi funtzionatuko duela bai Espainian, baita Euskal Herrian ere, Betagarriren espiritua lehenengo diskoetan islatu zelako. Jendeak beti erreparatzen die Hertzainak-en, La Polla-ren lehen lanei... Uste dut polita izango dela zuzeneko bat egitea.

gerrarik ez

testua: leire lpz. de aberasturi
argazkiak: edorta

Inoiz baino gertuago eta ia zuzenean ikusi den gerrak mundu mailako mobilizaziorik handienak eragin ditu. Herri guztietako milioika lagun "Gerrarik ez. Ez gure izenean" esatera irten da kalera.

Mugimendu hori Gasteizen ere nabaritu da, eta indarrez gainera: Manifestazioek milaka lagun bildu dituzte, etxeetako balkoietan gerraren aurkako dozenaka pankarta ikusi dira, galdeketa ia 20.000 pertsonak parte hartu zuten -Bilbo edo Donostian baino gehiago-, Foru plazako akanpadak bisita asko jaso ditu egunero,...



Egin diren mobilizazioek izan duten erantzunarekin oso pozik agertu da Iñaki Lazkanok, gerraren aurkako plataformako kidea. "Manifestazioena izugarria izan da, gerraren sentimendua oso zabala izaki oso polita izan da behingoz Euskal Herrian hain jende desberdina elkarrekin ikustea". Izan ere, adin guztietako jendea hurbiltzeaz gain alderdi guztietako pertsonen babesa izan dute mobilizazioek, baita plataforman parte hartzen ez zuten PSE eta UAKoena ere, adibidez. Era berean, azpimarragarria izan da Gasteizen bizi diren arabiar asko ere ikusi dela, bai kontzentrazioetan, baita akanpadan ere. "Pankartak egin dizkigute, daukagun liburuan arabiarrez sinatu,...", azaldu du Lazkanok.

Globalizazioaren aurkako mugimendua

Zergatik eman dio gizarteak horren erantzun zabala gerrari beste askotan mugiaraztea zaila denean? Hiru arrazoi aipatu ditu Iñaki Lazkanok galdera hori egitean: "Gerrarako ematen dituzten arrazoiak ez direla legezkoak konturatu da jendea; bestetik, mundu mailan sortzen ari den antiglobalizazioaren aurkako mugimenduak arlo hori asko landu du, eta bere pisua ere badu Estatuan jendea oso nazkatuta dagoela Alderdi Popularrarekin".

Gerraren aurkako plataformako kideak dioenez, "jendea konturatu da gerra ez dutela egiten irakiarrek tirano batengandik askatzeagatik; petroleoa eta zonaldeko kontrola dira benetako arrazoiak, Ameriketako Estatu Batuek argi esan baitute gerra prebentiboa

BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

SARTU
Zure arropa eta oinetakoak
www.sartuenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA TABERNA
Eguzkitan, estalpean eta oinetan
JANTOKI BEGETARIANOAK
SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



erabiliko dutela beren interesen alde". Inbasioa erabat bidegabea izateak jendearen haserrea piztu du, eta globalizazioaren aurkako mugimenduak antolaketa sarea eman dio sentimendu horri: "Florentzia eta Porto Allegren asko jorratu zen gaia eta gerra hasiz gero mobilizazio globalak egitea erabaki zen, baita data zehatzak jarri ere".

"Lotsagarria da nola sartu gaituzten gerran"

Hogei bat taldek osatzen dute Gasteizko gerraren aurkako plataforma, sindikatu, alderdi politiko, nazioarteko gaiak jorratzen dituzten taldeak, eta abar. "Hau da, gizarte eragileak, herri mugimenduak", laburbildu du Lazkanok. Plataforma sortu zenean izena eman zuten guztiek ez dutela maila berdinean parte hartzen aitortu du, "baina oso zaila izaten da hasierako partehartze maila mantentzea". Euren kasa doazenak ere dauden arren, gehienak beren elkartearen izenean doaz, "eta kontuan hartzekoa da nahiz eta plataformako bileretara joan ez, beren taldetik gerraren aurka lan egiten jarraitzen dutela".

Plataformak "batez ere gerrari buruz hitz egiteko" balio izan

du, "baita jende askok elkar ezagutu eta elkarrekin lan egiteko ere". Baina kanpotik ikusita jendearen haserrea bideratzeko tresna izan da gehienbat, "astero-astero mobilizazioak egitea eskatzen ziguten eta horri erantzun bat ematen" saiatu da plataforma.

Hala eta guztiz ere, gerra aurretik mobilizazioak eta inbasioa hastean akanpada egin badute, orain, amaitutakoan ere lanean dihardute, proiektu zehatz batekin behinik behin: "Hauteskundeen inguruan Alderdi Popularraren aurkako kanpaina egingo dugu, lotsagarria delako nola sartu gaituzten gerran".

Akanpadari helduz, gasteiztar gehienek ikusi dituzte Foru plazako kanpin-dendak, gerraren aurkako kartelak..., hasierako ideia akanpada Andre Maria Zuriaren plazan jartzea bazen ere; baita kenduarazi ere. "Plataforma sortu zenetik argi izan genuen gerra hastekotan akanpada egingo genuela, protestagune iraunkor bezala", azaldu du Iñakik. Esperientzia aberasgarria izan da, "jendea egunero etorri da balkoietan jartzeko banderak erostera, liburuan sinatzera, kafea ekartzera edo apur bat hitz egitera".



Iñaki Lazkano, gerraren aurkako plataformako kidea

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



**EAJ
PNV**

Hitza, bihotzaren giltza:
**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA

Sagardotegia

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:**

HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

publizitatea



adaka
madinabeitia

Florida 35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



eguzkitarako nobedade
novedade

eguzkitarako nobedade
guztiak MendiaOptikan,
... zatoz ikustera

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Pza. Virgen Blanca
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailez



testua: josune veleaz de mendizabal

argazkia: edorta sanz



Hitz jario etengabeko alaitasun zirimola da Lexuri Ugarte. 1979. urteko martxoaren 4an jaioa den laudiotar hau Gasteiza dator egunero duela urtebete luze gure hiriko informazioa jorratzera. Ikus-entzunezko komunikazio ikasketak gauzatu eta Euskadi Gaztean eta Euskadi Irratian ibili ondoren egun Garan aritzen da kazetari lanetan. "Pisziz naiz, Laudiokoa eta Errealekoa; txorizoak egiten badakit eta gainera txerribodetan ibilitakoa, hau oso inportantea da... (isilunea), ...hau dena erreferentzia bat izan dezazuen". Hitz egitea gustuko duela ere badio. Zer esanik ez.

LEXURI UGARTE, irribarrea nonahi

- Zer eskatzen diozu bizitzari?

Gauza asko... Batetik, osasuna, etxekoak ondo egon daitezela eta, bestetik, lagunak mantentzea.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Euskal Herriaren kontra egiten duen edozein gauzak; bestetik, nire etxekoaren kontra egiten duen edozein gauzak; eta azkenik, faltsukeriak.

- Geu elkarte eta Geu aldizkariaren berririk bai? Bai.

- Egunkari bat?

Bi, Gara eta Egunero-Egunkaria.

- Telebistako saio bat? Telesailak ez zaizkit gustatzen. Filmak "irensten" ditut.

- Film on bat?

Godard-en "Vivesabrie".

- Jaki gozoren bat?

Nire amamaren intxaur-saltsa.

- Eta batere gustazen ez zaizuna?

Indaba zuriak.

- Oporrak non eta zertarako?

Euskal Herriko kostaldean, erlajatzeko batez ere.

- Munduan den denbora guztia izanez gero, zer egingo zenuke?

Bidaiaztea eta munduan dagoen edozein gatazka konpontzen saiatuko nintzateke... Jaungoikoaren papera egingo nuke...

- Liburu bat?

"La Vieja Sirena", Sampedrorena.

- Zein musika atsegin duzu?

Denetatik.

- Laudion biziko ez bazina, non?

Orozkon.

- Gasteizek duen onena?

Gazte giroa, eta geroz eta indartsuago dagoen euskal mugimendua.

- Eta txarrena?

Agintearen politika baztertzaila.

- Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Bai.

- Eta Laudion?

Baita ere, hori norberaren apustua da..., euskalduna bazara euskaraz hitz egin eta listo, ez dugu gehiago behar.

- Gustuko koloreen bat?

Berdea.

- Gorputzeko atalik politena? Norena? Nirea? Begiak.

- Zer eskatzen du herriak?

Askatasuna.

XAGUMENDI:

EUSKARA, ETXETIK AUZORA

testua: leire lpz. de aberasturi
argazkia: artxibo

Ikastola eta hezkuntza eredu euskaldunetan ikasten duten haur guztiek ez dutela kalean euskaraz hitz egiten argi dago. Are gehiago, euskalgintza eta euskararen normalizazioaren betiko arazoa da. Arazo horri aurre egiteko modu bat sortu da Gasteizko Judimendi auzoan, guraso talde bat haurrek kalean eta aisialdian euskaraz egin dezaten bideak jartzeko elkartu baita.

Xagumendi izena jarri diote taldeari, Josu Olanok, bultzatzaileetako batek, kontatu duenez. Helburua argi dago: euskaldunak diren umeek euskaraz hitz egitea, "eta horretarako baldintzak eta aukerak jarri behar dira". "Kuriosoa da baina ikastola eta gela berera doazen bi haurrek parkean elkartzen direnean ez dute euskaraz hitz egiten, oso azkarrek direnez euskara eskolarako dela eta kalean gaztekeraz hitz egiten dela nagusiki konturatzen direlako", kexatu da Josu.

Diagnostikoa eginda, "betiko arazoa" denari "beste era batera" aurre egitea erabaki du Xagumendi taldeak. Etxetik hasi behar dela uste dute eta Euskal Herri mailako kanpaina handien eraginkortasuna zalantzan jartzen dute. Helburuak lortzeko plangintza eta taldea bera filosofia horretatik abiatuta sortu dute: "hobe da lan egiteko talde txiki bat izatea, jende gutxi baina lanerako prest, eta laguntzaile talde bat, eta azpiegitura horrekin gauza gutxi baina ondo egindakoak aurrera eraman".

Arazoa handia eta zaharra dela kontuan izanda, lasai hartu dute konponbidea ematearena. Ikasturte honetan ekitaldiren bat egiteko asmoa duten arren -ihauterietan adibidez irteera bat antolatu zuten-, lan ildoak zehaztea izango da ahailegin nagusia. Datorren ikasturtean, berriz, lan-taldea egituratuta izango dute eta "lan serioa hasteko prest" egongo dira. Plana datozen

bost urteetarako da: "lehenengo gauza, euskaldunak ez diren gurasoak ikasten hastea izango da, gero ohiturak euskaldundu behar ditugu eta kalean euskaraz hitz egiteko bideak jorratu", azaldu du Josuk. Ohiturak euskalduntzeko auzoko denda euskaldunen errolda egin beharko litzateke adibidez, edo gutxienez horiek ezagutzera eman edo identifikatu; eta euskaraz hitz egiteko bideak jorratzeaz ari direla, "auzoko jaietan Euskara Eguna baino zerbait gorpuztuagoa egin behar dela" esan nahi du Olanok.

AUZORIK AUZO

Auzoz auzo, txikitik handira lan eginda helburuak lortzea errazagoa izango dela uste dute Xagumendikoek. "Etxetik hasita auzora, hirira, eskualdera, herrialdera eta Euskal Herrira iristea da xedea", azaldu du Olanok. Baina normalizazioan aurrera egiteko horrelako dinamikak etxe eta auzo orotan sortu beharko liratekeela dakitenez, Gasteizen talde gehiago sortzea nahiko lukete. "Ez diogu inori gauzak nola egin behar dituen esan nahi, helburuak lortzeko bide bat baino gehiago dagoelako, baina horrelako taldeak auzo gehiagotan sortzen badira, elkarlanerako prest gaude", azaldu du Josuk.



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073



XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ



Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

AGURAINEK, BAI euskarari

Kontseiluak bultzatutako Bai Euskarari akordioa aurrera eramane duen Arabako lehen herria da Agurain. Urte hasieran sortutako prozesua aurrera doa eta dagoeneko 25 gizarte eragilek sinatu dute konpromisoa beste asko hori egiteko aukera aztertzen ari diren bitartean.

testua: leire lpz. de aberasturi

Ezaguna da Kontseiluak duela bost urte aurkeztutako proiektuaren helburua euskararen erabilera modu erreal eta neurgarri batean handitzea dela. Euskal Herri mailan 1998ko abenduan sortu zen kanpaina iaz hasi zen gorpuzten Agurainen, herriko Udaleko alderdi politikoek baietza eman ziotenean akordioari. Baietzarekin batera proiektua aurrera eramateko oso garrantzitsuak diren 31.552 euro jarri zituen Udalak eta bi tekniko kontratatu, Yolanda Arrondo eta Txus Argote.

Pauso praktiko zehatzak bilatzen ditu Bai Euskarari akordioak, baita horretarako bide zuzena jarri ere. Lehenik eta behin, herriko ahalik eta gizarte eragile gehien gonbidatzen dira akordioan parte hartzeko, eta horretan dihardute egun Arrondok eta Argotek, Akordioaren Zuzendaritza Batzordea osatzen duten eragile guztiekin batera, hau da, alderdi politiko guztiak, ikastola, hainbat enpresa, alkatea, euskaltegia, apaiza,... 180 gonbidapen egin dira eta dagoeneko 25 baieztatu erantzun ofizial jaso dituzte. "Oso erantzun ona jaso dugu, ezezkorik egon da noski, baina agian arazorik handiena batzuen eszeptizismoa da. Horri aurre egiteko lan egin behar dugu", azaldu du Yolanda Arrondok. Zuzendaritza taldeak Kontseilu eta EMUNeko aholkularitza adituen laguntza izango du.



Teknikoak urtebetez ariko direnez lanean, gauzak lasaiegi hartzeko denborarik ere ez dago eta baieztatu guztiak jaso eta gero, uda ostean ziurrenik, sinatzaileen bilerak hasiko dira konpromiso zehatzak hartu eta definitzeko. Bilerak taldeka egingo dira eta irakaskuntzak, merkataritza-ostalaritzak, lan munduak eta elkaratek beren sektorean dagoen egoera diagnostikatu, helburuak jarri eta lan ildo eta ekintza zehatzak definituko dituzte.

BAKOITZA BERE ERITMORA

Diagnostikoa eta helburuak amankomunak izango dira sektore bakoitzerako, baina helburuak jartzeko orduan nor bere eritmoan arituko dela azpimarratu du Arrondok. "Helburu zerrenda luzea egiteko asmoa dago, horrela bakoitzak markatuko du dagoeneko beteta duena eta bete nahi duena", betiere borondatezko prozesu baten barruan eta eragile guztien laguntza eta oniritziarekin. Ekintza zehatzak? Dendetako kartelak euskaratzea, dendari euskaldunak identifikatzea,...

Herriko eragile, talde edo pertsona bakoitzak bere erara lan egingo duen bezala, Euskal Herrian ere eritmo desberdinak jarriko dira, "eta Aguraingo prozesu honek ez du zerikusirik Euskal Herri mailan egingo den Bai Euskarari kanpainarekin; herri bakoitza mundu bat da, nahiz eta diagnostikoa gauza beretsuak irtengo direla pentsatzen duen Kontseiluak".



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

KIRMEN URIBERen POEME



"bertan, euskarak,
euskal kulturak, Euskal
Herriak badu prestigio bat; ez
dauka hemen jarri nahi
diguten mantxa"

KIRMEN URIBE: SENTIMENDUA DARION SORTZAILEA

ONDARRUN JAIO ZEN KIRMEN URIBE DUELA 31 URTE, BAINA URTEAK DARAMATZA GASTEIZEN BIZITZEN, IKASTERA ETORRI ZENETIK HAIN ZUZEN. HALA ERE BIHOTZEAN DU BIZKAIKO HERRIA, BERTAN URTE ASKOTAN BIZI IZAN BAITA ETA OROITZAPEN UGARIK BILTZEN DU BERTARA. ZUTABEGILE, GIDOILARI, IKUS-ENTZUNEZKOEN SORTZAILE NAHIZ POESIA IDAZLE MODUAN EGITEN DU LAN ETA 2001EKO ABENDUAN KALERATU ZUEN SUSAR ARGITALETXEAREN ESKUTIK BERE LEHEN OLERKI LIBURUA: "BITARTEAN, HELDU ESKUTIK" LANA. 1996. URTEAN "LIZARDI ETA EROTISMOA" SAIKERA KALERATU ZUEN ETA 2001EAN ERE "BAR PUERTO" DISKO-LIBURUA. ZUTABEGINTZA ERE GUSTUKO DU, ETA ITXI BERRI DUTEN EUSKALDUNON EGUNKARIAN IDAZTEN OHI ZUEN. EUSKAL TELEBISTAKO SAUTRELA SAIOAN GIDOILARI LANA EGITEN DU.

testua: edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz eta mikel valverde

Kirmen Uribe martxoan joan zen New Yorkera hainbat poesia emanaldi eskaintzera. Saioetara Mikel Urdangarinen musika eraman zuen, bai eta Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda (P. L. T.) ere, biolin eta gitarra elektrikoarekin, hurrenez hurren. AEBetan bizitakoa izugarri baliotsua izan da laukote honentzat, baina are eta baliagarriagoa euskal poesia eta musikarentzat. Uribek eta Urdangarinek hala kontatu digute, arratsalde euritsu batean, kafe goxo baten laguntzaz.

N TXANGO AMERIKARRA

Kirmen Uribek Bilbon ezagutu zuen Elisabeth Macklin itzultzailea, duela urte batzuk. Lizardi euskaltegian euskara ikasten zebilela haren poesiaren berri izan zuen, eta *Bitartean heldu eskutik* liburuko poemak ingelesera itzultzeko gogoia zuela adierazi zion amerikarrak.

Horrela sortu zen bien arteko harreman, eta hala iritsi zen Uriberen sorkuntza lana AEBetara. Hainbat erreztaldi ematera gonbidatu eta *Zaharregia, txikiegia agian* izenburupean (*Perhaps too old, too small* ingelesez) sei emanaldi eskaini zituen New Yorken: Bowery Poetry Klubean, Nicholas Roerich Museum-ean, Cornelia Street Cafe-n, Ear Inn-en eta Unibertsitatean (CUNY).

Kirmenek azaltzen digunez, bertara egindako bisitaren helburu nagusienak hiru ziren: "Amerikarrek euskara entzutea, literaturaz gozaraztea eta komunikaztea". Emaizarekin gustura asko geratu dira eta bereziki eskertu dute bertako jendeak erreztaldietan erakutsitako sentiberatasuna eta espresibitatea. "Askok bizi dute, aurpegietan ikusten zen istorioan sartzen zirela", dio Kirmenek. "New York mundu konprimatu bat da, baina oso irekia da. Jende guztia oso espresiboa dela nabaritzen da", gaineratzen du Mikelek.

Erreztaldiak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez egin zituen Kirmenek. Ingelesez "oso politak" geratzen zirela iritzi dio Mikelek, eta Kirmenek hizkuntz horretan erakutsitako maila ere goresten du: "Irakurketa guztiak oso ongi egin zituen, ez zen artifizial geratzen, oso ingeles sinesgarrian irakurri zituelako".

Alabaina, bertakoek euskaraz irakurritakoak izan zituzten gogokoen; gure hizkuntzaren sonoritatea izugarri atsegin zitzaizen eta euskarak oso doinu polita zuela esan zieten emanaldi bakoitzean. Euskararekiko mirespen horrek hausnarketa baterako modua ematen dio Mikeli: "Espainiakoa ez bezala, bertako audientzia ez zegoen hain kutsatuta, politikoki oso zabalak ziren. Bertan, euskarak, euskal kulturak, Euskal Herriak badu

prestigio bat; ez dauka hemen jarri nahi diguten mantxa".

New Yorken bizitakoak izugarrizko eragina izan du Kirmenen ibilbidean, lehendik hartuak zituen bi erabaki berrestearino: bata, bakarrik idaztearena, eta bestea, kalitateari garrantzi handia ematea, lehen baino gehiago, ahal bada. Horren ildotik, bidaia honek balio izan die Euskal Herritik at joan eta euskal kultura zabaltzeko aukera guztiak probetxatu behar dituztela ohartzeko.

Mikelek ere ideia hori nabarmentzen du: "Euskaldunak garelazabaldu behar dugu munduan. Kasu egin behar diegu kanpoko deiei". Bidaia honek "begiak zabaldu" dizkio Mikeli, eta Kirmen eta gainontzekoekin batera sortutako esperientzia mundu zabalean hedatzeko gogoia eta kontzientzia piztu diola diosku.

Mementoz hainbat eskolatan eskaintzen ari dira emanaldi horiek, baina oraindik ez dute erabaki aurrerantzean zer egingo duten. Edonola ere ez dira isilik geratuko, eta euren poesia eta musikaz gozatzeko parada izango dugu... zorionez.



BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourrier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 26 19 91
01004

Garagardotegia
Asteartetik
Igandera
IREKITA
La Blanca
* Oilasko erreak
* Kazolatxoak
Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

Dalvez
argitarazleak
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net
maketazioa
diseinua

Gurasoen erabakiak EUSKAL EREDUAK indartu ditu

testua: leire lpz. de aberasturi

argazkia: artxibo

Datorren ikasturtean lehen aldiz ikastola edo eskolara joaten diren neska-mutilen %86,5ek euskal ereduak indartzen jarraitu du eta egun B bada eskaera gehien biltzen dituen, D indartu egiten da ikasturtez ikasturte, poliki baina etengabe. Datu horiek datorren irailean eskolara estreinakoz joango diren 2 eta 3 urteko umeenak dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eman berri dituen 2003-2004 ikasturteko matrikulazio datuek ez dute ustekaberik ekarri, aurreko urteetako dinamika indartu baitute. Apurka-apurka arabar gurasoek A gatzelerazko ereduak baztertu eta duela

bost urte %23ren aukera zena %13,5rena baino ez da 2003ko martxoan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Araban bezala, datorren ikasturtean aurrekoen joera mantenduko da. Hiru herrialdeak kontuan hartuta, eredu euskaldunak haurren %91,4 bilduko dute: eredu euskaldun elebakarrak, %61,3; eta elebidunak, %30,1.

PUBLIKOAN NAGUSI

Sare publiko eta pribatuaren arteko desberdintasun handiegirik ez dagoen arren, eredu erdalduna aukeratzen dutenek pribatura jotzen dute gehienbat, gela elebidunak eskola kontzertatuetan biltzen dira eta euskaldunak publikoan dira nagusi.



Hezkuntzako arduradunek azpimarratu zuten, seme-alabentzat B edo D ereduak hautatzen dituzten guraso guztiak ez dira euskaldunak, beraz, euskara ikasle askoren ama-hizkuntza ez izan arren, horren aldeko apustua egiten dute. Hori nabarmena da Araban, non oraindik gurasoen kopuru altu xamarra ez den euskalduna.

www.inguma.org

Inguma

Euskal Komunitate Zientifikoaren DATU BASEA
Scientific Basque DATA BASE
BASE DE DATOS de la Comunidad Científica Vasca
BASE DE DONÉES de la Communauté Scientifique Basque

INGUM@

Gaur egun Euskal Herrian Unibertsitate mailako prestakuntza duten euskaldunak asko dira. Beste edozein profesional kualifikaturen parean daude, adituak dira, eta horretaz gain, euskaldunak. Pertsona horiek guztiek (medikuek, abokatuak, irakasleak,...) osatzen dute Euskal Komunitate Zientifiko-Intelektuala.

Orain arte gizarteko talde horren inguruan oso gauza gutxi ezagutzen zen, leku oso ezberdinetan lan egiten dutelako, batzuk unibertsitateetan, beste batzuk aldiz, abokatu-bulego edo ospitaleetan.

Euskaldun adituak ez dute elkar ezagutzen eta beraz, ez dago beraien artean harremanik. Horren ondorioetako bat da, adibidez, gaur egun euskararen normalizazio prozesua jakintza-arlo bakoitzean (matematika, ingeniariaritz, historia,...) mugatuta aurkitzea. Sakabanaketa eta inkomunikazioari aurre egiteko interneten egitasmo interesgarria aurki daiteke: Inguma (www.inguma.org).

Inguma, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) sortutako datu-basea da. Bertan azken 30 urteotan euskaraz eta unibertsitate mailan produzitu diren dokumentuak (liburuak, artikulak, hitzaldiak,...) eta beraien egileak jaso dira. Era honetan azken bi urteotan 18.000 dokumenturen

katalogazioa burutu da eta 5.000 egile euskaldun zerrendatu dira. Egilearen izen-abizenekin batera, posta elektronikoa aipatzen da. Nahikoa da sagua egilearen helbide elektronikoaren gainean jarri eta "klik" egitea, adituarekin harremanetan jartzeko (ikus irudia). Honela Euskal Komunitate Zientifikoaren kideen arteko komunikazioa eta elkar ezagutza ahalbidetzen da. Inguma-k, adibidez, polimeroen inguruan lanean dabiltzan ipar eta hego Euskal Herriko adituak harremanetan jartzeko aukera ematen du.

Baina zientzilaria izan gabe ere, zer nolako erabilera praktikoa eduki dezake Inguma-k?

Inguma euskal kulturen interesatuta dagoen edonorentzat baliagarria da: 1) euskarazko produkzio zientifiko-intelektualaren segimendua egiteko (gairik landuenak zeintzuk diren ezagutu); 2) jardunaldiak, ikastaroak eta kultur ekitaldiak antolatzeke, 3) euskal egileen curriculum-a ezagutzeko, 4) klaserako lanak prestatzeko, euskarazko bibliografia erabiliz; eta abar.

Karmele Artetxe Sanchez (inguma@ueu.org)



DIOCESANAS-MOLINUEVO:

ikasketa metodologia berria, ikasleen mesedetan



testua: edurne begiristain • argazkia: edorta

... ETA EUSKARA GASTEIZEN SUSTATZEKO

Euskararen alde beste urrats bat eman du Gasteizko ikastetxeak, eta aurren, aurreneko, euskarazko ipuin lehiaketa antolatuta du Arabako ikastetxeetan DLH, DBH, Batxilergoa eta zikloetan dabilen ikasleei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea ekainaren 10ean bukatuko da. Informazio gehiago Molinuevo ikastetxean emango dizute.

HIZKUNTZAK ATZERRIAN IKASTEKO...

Leonardo programa abian jarri du aurren Molinuevok, beka baten bitartez ikasleek atzerrian hizkuntzak ikasteko aukera izan dezaten. Aurren hamaika gazte joan dira Alemania, Irlanda, Frantzia, Austria eta Ingalaterrara, hiru hilabetez. "Oso esperientzia emankorra da eta ikasleak oso gustura daude", diosku Pedrosak.

Ikasketa metodologia honen nondik norakoak hobeki ezagutzeko asmoz, Oskar Pedrosa Molinuevoko zuzendariarekin, Iñaki Resa Ikasberri proiektuko buru eta Arriagako zuzendariarekin, eta Juan Jesus Capellan irakaslearekin bildu gara.

Azaldu digutenez, Ikasberri proiektuaren zutabe nagusia ikasleen autonomia erdiesten da, eta horretarako orain arte irakasle eta ikasleen arteko harremanari buelta ematen zaio. "Proiektu honetan aldaketa metodologikoa nahi dugu, betidanik irakaslea izan da informazioaren jabe, eta orain ikasleek beraiek lortu behar dute informazioa eta gero ezagueran bilakatu", azaldu digu Resak. Horretarako, mediateka bat zabaldu dute Molinuevo ikastetxean, irakasleekin batera edo eurek bakarrik informazioa erdietsi ahal izateko.

Proiektu honen beste helburuetako bat ikasleen autoebaluazioa lortzea da. "Normalean irakasleak esan ohi du nork gaintitu behar duen eta zer egin ikasgaia gaintitzeko; prozesu honekin ebaluaketa bion artean egin behar da", esan digu.

Hartara, irakasleen papera erabat aldatzen da metodologia honekin. Halaxe adierazi digu Capellane: "Irakasleek ikasteko prozesu hori martxan jartzen dugu, eta hortik aurrera gida edo laguntzaileak izaten gara. Beraz, irakasleen funtzioa aldatu da, irakasteaz gain ikasten ari garelako".

Ikasberri egitasmoak badu, beraz, funtzio

Diocesanas-Molinuevo Gasteizko ikastetxeak teknologia berriei egokitutako ikasketa metodologia berritzailea erabiltzen du duela bi urtetik hona. IKASBERRI izeneko proiektuarekin ikasleengan autonomia lortzeaz gainera, ikasteko motibazio gehiago ere erdiesten da.

inportante bat irakasleen artean, gizartean berriak diren teknologiak, metodologiak eta antolamenduak bereganatzearena, hain justu. Horretarako, lau pauso ematen dituzte irakasleek: Batetik, metodologia berriak atzeman, eta gero garatu eta ikasten dituzte. Hirugarren pausoa metodologia departamentu desberdinetan erabiltzea da, eta amaitzeko lehenbiziko frogak eta ebaluaketak egiten dituzte. Lau urrats horiek "hobekuntza jarraituaren prozesuan" oinarrituta daudela diosku Capellane.

Hitz potoloak diruditen arren, metodologiak oso ongi funtzionatzen du eta ikasleen artean harrera paregabea dauka. "Ikasleentzat motibazio aldetik aurrerapauso itzela izan da, gauzak egiteko gogoa errazago ateratzen baita metodo honekin", azaldu digu Pedrosak.

Ikasleak gustura asko ei daude, ikastetxeko mediateka jendez gainezka baitago une oro. Gainera, ikasketa proiektu honek ikasle zein irakasleengan onurak ekartzen ditu eta hori azken emaitzetan islatzen da. Molinuevok ongi asmatu duela esan daiteke, beraz. Zorionak.



publizitatea

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~
urtean 30€



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____
IZENA: _____
HELBIDEA: _____ P.K: _____
HERRIA: _____ LURRALDEA: _____
TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____
POSTA E: _____

Ordainketa mota:

☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

MAIATZA

EGUNKARIAREN ALDE...:

...Harpidetza egitea oso garrantzizkoa da: 943303555
Egunkaria-Egunero aurrera! Euskal Prentsa aurrera!

Egunkaria

ADI IKAKO
XV. Kultur
asteari

5

GEUJIRAN, geu elkartea eta geu aldizkariaren irratsaio berri, fresko eta bizia. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n. Klaudio Landa, Eloi Beato, Josune Bereziartu, Anjel Alkain, Fermin Muguruza, Itziar Alduntzin eta abarren kanturik gogokoena zein den jakin nahiko zenukete??? Ba ez galdu hilaren 5eko Geujiran!!!

6

Parral. Maldan, Bilbotik, pop-rocka. 20.30etan

10

Arabako Bertsolari txapelketa: 1. Final-aurrea. 18.30etan Legutioko Kultur Etxean. Informazioa: 615790677
*Autobusa 17.30etan aterako da Gasteizko Iparralde Gizarte Etxetik eta itzulera afalostean izango da.

10

Arabako Natura Institutua (ANI): azarora bitartera hilero ekintza bat antolatuko dute. Informazioa: 945246606
Hilaren 10ean: Hegaztien kantuen identifikaziorako irteera.

Erakusketa: Miguel Lekuona-argazkiak. Hilaren 10era arte. Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian.

12

GEUJIRAN, geu elkartea eta geu aldizkariaren irratsaio berri, fresko eta bizia. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n.

13

Parral. Txina eta Mongoliako diapositibak, Aliciaren eskutik. 20.30etan
Erakusketa: La mujer en el cartel publicitario. Carlos Velasco-ren bildumaekoa Kultura Etxea. Hilaren 13ra arte.

17

Arabako Bertsolari txapelketa: 2. Final-aurrea. 18.30etan Amurrioko Zaroabe Institutuan. Informazioa: 615790677
*Autobusa 17.30etan aterako da Gasteizko Iparralde Gizarte Etxetik eta itzulera afalostean izango da.

18

geurekin mendira SAN TIRSO (1329), PEÑA DEL LEÓN (1389) Informazioa: 945146256 (Eduarne)
Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko 9.00etan

19

GEUJIRAN, geu elkartea eta geu aldizkariaren irratsaio berri, fresko eta bizia. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n.

20

Parral. MacRea. Umorezko bakarriketak. Irlandatik. 20.30etan

Beste

-Ekainak 1: Arabako Bertsolari Txapelketa-2003. FINALA: 17.30etan Principal antzokian.

24

Arabako Natura Institutua (ANI): Biasteriko antziretara eta Las Cañas urtegira. Ornitologia irteera. Informazioa: 945246606

26

GEUJIRAN, geu elkartea eta geu aldizkariaren irratsaio berri, fresko eta bizia. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n.

26

XIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria. Epea: maiatzak 26. Informazioa: Andoingo Udala

27

KULTUR ERROTA Geu elkartearen eskutik, KONTZERTUA: LABRIT Parral-en, 20.30etan

-VI. Igartza Saria: Literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat. Bekaren kopurua: 6000 euroko dirulaguntza. Epea: uztailak 1. Informazioa: Beasaingo Udala-Euskara Zerbitzua.

-3. Umore grafikoko nazioarteko lehiaketa, "Teknologia berriak" izenpean. Epea: 2003ko azaroak 3. Lanak eta datuak bidaltzeko: hermesbarakaldo@barakaldo.org.

araba euskaraz 2003



Laguntzaileak:

Ikastolen Elkartea -Oion- San Bizente ikastola
Vital Kutxa Fundazioa - GEU aldizkaria - Oiongo Udala
Gasteizko Udala - Aguraingo Udala - Laudio Udala



GASTEIZ

maiatzak 10 19,00etan.

HORTZMUGA antzerkia:


"Galaxi"

Foruen plaza

maiatzak 24 20,30etan.

OSKORRI kontzertua

Principal Antzokia



LABURPENA

5. atalaren LABURPENA
"Kaliforniako mahaspasak"
Joxean Sagastizabal

Asun bikiklonarekin hasten da hizketan. Jatetxean dauden lagunak, astrapalaka. Jonek, bitartean, egoeraren inguruko puzzle xelebrea osatzen dihardu. Asunek bikiklona -zeharo mozkortuta- dakarkio eta suminduraz bere ahizpa, Marga, dela esaten dio, jarraian egia esan behar diola adieraziz: "ez al duzu ulertzen zer gertatzen den, Jon?", galdetzen dio, Jonek tutik ulertzen ez duela erantzunez. Neskek

eskatu whiskyak 'bakeroen estiloan' edandakoan eta Jonek eskaturiko pomelo zukutan beratu Kaliforniako mahaspasak aurrean dituela, Asunek mutilak txandakatzen dituztela esaten dio; Jon kotxean ordu erdiz bere zain egon denean, saio azkartxo bat egin duela Victorrekin (ez zuen gogoratzen Victorrekin zita zuela), eta ondoren bere asmoa Jonekin 'Sodomatik Gomorrara' ibiltzea zela, baina bere ahizpa, alkoholak nahasturik tokatzen ez zitzaionean azaldu dela... Jon Pabloz gogoratzen da.

"Eta zer duzue maletetan?", galdetzen die.



EDU ZELAIETA

6. Plan aldaketa

- Maletetan? Garrantzizko ezer gutxi.

- Garrantzizko ezer gutxi! Nik ez dakit zer gertatzen den hemen. Baina oso arraroa da dena: zuek biok bi ur tanta baino berdinagoak zarete, maleta berdin bana duzue eta gainera zerbitzaria zelatan ari zaigula uste dut.- Jonek, behingoz, orain arte barrena erretzen izan

duen asaldura kanpora atera du kolpetik. Urduri dago oso.

- Bada, ez da hain harrigarria. Ahizpa bikiak gara, bistan denez; eta hain zuzen ere, ahizpa bikiak garen aldetik, maiz gustu berdinsuak izaten ditugu. Baita maleta motak hautatzeko orduan ere. Eta zerbitzariarena, bada, ...

Bat-batean, Jon ohartu da neskak



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztozile Kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

azkarprint
Imprenta / Impremataga
S INPRIMATEGIA S
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

dioena ez dela hain arraroa. Bat-batean konturatu da batzuetan irudimen handiegia duela. Bat-batean konturatu ere mundu guztiaren aurrean agerian gelditzekotan egon dela, eta beharbada, orain bera izango dela xelebrea eta bitxia emango duena.

- Barkatu, Asun eta... Marga, baina uste dut halako batean edaria eta hemengo berotasun itogarria batera igo zaizkidala burura, eta... Ongi iruditzen bazaizue, ni komunera noan bitartean, zuek kontua eskatu, baina ez ordaindu, eh! eta hemendik irtengo gara.

Mahaitik urduritasuna gorde nahian altxatu da Jon, artean nahiko urduri baitago. Komunean txiza egin du berriz ere. Babeslekuan. Geroxeago, eskuak garbitu, lehortu, pittin bat apaindu eta ispiluaurrean aurrean bere buruari begira gelditu da. Izu-ikaraz, arnasestuka. Orduantxe Pabloz oroitu da, eta Pabloz oroitzearekin batean, aspaldiko mamuak etorri zaizkio gogora berriro: ospitaleko zazpigarren solairuan emandako


egunak eta asteak. Izan ere, ospitaleko zazpigarren solairuan, leihoak eta ateak bultzada soil batez irekitzen ez diren solairuan, Pablo ezagutu zuen.

Kanpora atera da. Oihanera. Orain Jon lasaixeago dago. Edo hori dirudi behintzat. Neska bikien mahaira hurbildu da kontua ordaintzeko asmoz, baina Asunek esan dio jatetxe horretan badagoela lege bat:

- Bikiren batek ekarrita etortzen baldin bazara hona, ezin duzu inolaz ere ordaindu. Aspaldiko tradizioa da hori hemen.- diotso bere ohizko irribarre lasaigarriarekin.

Bikien Klubetik atera baino lehentxeago, atenditu dituen zerbitzaria agurtu dute hirurek. Baita Jonek ere. Adeitsuki.

Jonek oraindik ez daki zer dagoen maletetan, eta egia esan, oraintxe ez zaio batere axola. Bestelako kontu batzuk ditu gogoan. Asunek ere baditu bestelako gauza batzuk buruan bueltaka: zer dela eta, lehengo eszena hori? Honek zer uste du beste planeta batetik etorritakoak garela, edo zer? Ez



dakit, ez dakit... Victor erdialdean utzi eta gero, Jonekin gau ona pasa eta txortan egitea zen nire asmoa. Horixe bera aitortu behar izan diot nire ahizparen aurrean, ea ergela enteratzen zen! Bestela, paranoiaren bat eman behar ziola zirudien. Orain, ikusiak ikusita, benetan gogoia joaten hasia zait.

Marga, ordea, berotzen hasia da, berak hasieran inongo asmorik ez bazuen ere. Jakina da, azken batean, ahizpa bikiek maletak hautatzeko gustu berdintsuak baldin badituzte, gainerako gauzetarako ere aski berdintsuak direla. Bai ordu eta egun berean jatetxe jakin batera joateko (eta bertan ezustean bere bikiarekin topatzeko), bai eta gogoko maitaleak aukeratzeko ere.

© edu zelaieta eta geu aldizkaria

MERKURIO-KADMIOKO
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

URKABUSTAIZKO "GOIKOAMA" BASELIZA


Azken urte hauetan, instituzioen zein jendearen partetik nabaria izan da gure historia eta arte-ondarearekiko sentikortasuna. Ondorioz, gero eta ekimen gehiago sortzen ari dira eraikin enblematikoak birgaitzeko eta txukuntzeko (elizak, baselizak, zubiak, errotak, iturriak,...); eta, aldi berean, beste zenbait ideia ere bultzatzen ari dira: museo etnografikoak, ohitura zaharrak berreskuratu, erromeriak, musika tresnak, dantzak, mapa toponimikoak, etab.

Ilido honetan, Arabako **Urkabustaiz**ko udalerrian sinbolikoenetarikoa den eraikin batean arreta jarriko dugu; hain zuzen ere, Oiardo herriko **"Goikoama"** basilizan.

Urkabustaiz osatzen duten hamabi herrietako bat dugu **Oiardo**. 40 biztanle eskas duen herrixka hau, antzinako "urkaerria" distritoan kokatzen da (Urkabustaizko udalerria, "Urkaberria" eta "Bustaiz" izeneko distritoen batasunetik sortu zen). Micaela Portilla irakaslearen "Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria: Cuartango, Urkabustaiz y Zigoitia" liburuak bikain erakusten du baseliza txiki honen garrantzi historikoa, erlijiosoa eta artistikoa.

"Monteallá" edo "Urkaerria" osatzen duten herrietako biztanleen artean debozio handikoa da "Goikoama Andra Mari". Leku honek, bere erlijiozko dimentsioaz gain, historikoki ere garrantzi handia izan du. Adibidez, bertan, historiaurreko tumulo baten arrastoak aurkitu dira, eta, mende askotan zehar, "Comunidad de Montes de Altube"ko kideen bilgunea izan da.

Hala ere, artikulu honetan, baselizaren



izenaz eta inguruetako antzeko toki-izenez
ariko gara.

Goikoama?

Micaela Portillak berak aipatzen duenez, antzinako dokumentazioan **Goicogana**, **Goycogana**, **Goikoana** edo **Goikogana** izenak aurkitu ditzakegu baseliza hau izendatzeko. Beraz, toki-izen honen grafia "escribano"-aren edo momentu historikoaren arabera aldatu egin da (noizbehinka, "Goicobana" izena ere agertu da), baina "Goikoama" izena ez da sekula santan azaldu.

Hain zuzen ere, “-gan/-gana” sufijoa nahiko

arrunta da Urkabustaizko toponimian, baita inguruko udalerrietan eta Euskal Herriko hainbat tokitan ere (batez ere Araban eta Bizkaian).

Toponimo askok kokapen geografikoa adierazten dute; eta, kasu honetan, “-Gan/-gana” bukaera duten toki-izenen kasuan, beste lekuren baten gaineko kokapena adierazten digute.

Atzizki honen esanahia garbia dirudi: toki baten gainean dagoena. Beraz, Goikogana izenak altu edo goiko aldearen gainean dagoen elementu edo tokiari buruzko erreferentzia ematen digu (kasu honetan Oiardoko goiko aldearen gainean dagoen baselizakoa; baina kontuan hartu behar dugu, seguruenik, toponimo hau baseliza egin baino lehen ere bazegoela).


Dudarik gabe, esanahi honek ez du zerikusirik izen honi, azken hamarkadetan, eman nahi izan dioten

zentzuarekin. Hau da, altuetako ama birjina (Goiko Ama).

Bukaera -gan/-gana duten toki-izenak asko dira Urkabustaizko Toponimian

Oiardoko baselizaren benetako izena, idatzizko testu zaharrei esker ezagutzeko aukera izan dugu, Urkabustaizko biztanleek ia-ia ahaztuta baitzuten. Izan ere, gaur egun, gehienek "Goikoama" izena ontzat ematen dute.

Zoritarrez, egoera hau nahiko zabaldua dago. Hau da, antzinako toponimoak galtzen



Koartango	Zuia	Amurrio
Armeñugana	Garaigan	Oyargan
Mariogan	Garigan	Mendigan
Bidagana	Respaldetxugana	Tontorrogan
Boringan	Ozargan	Biturigan
	Lapikarigana	Betreñagan

Bertako toponimiari buruzko zenbait ohar

testua eta irudiak: Gustavo Barron, historiagilea

ari dira eta izen "berriak" sortzen dira. Adibidez, Urkabustaizko "El Alto del Corral" eta "El Alto de Ondona" toki-izenak egoera honen adierazle garbiak ditugu.

Urkabustaizen bisitari gehien jasotzen duen lekuetariko bat dugu "El Alto del Corral" mendia, hemendik ikuspegi panoramiko ederrak baitaude lau haizetara (Salbada-Garobel mendizerra mendebaldean, Koartangoko Harana, Arkamo eta Badaia Mendizerrak Hegoaldean, Zuiako Bailara Ekialdean, eta Gorbeialdea eta Urkabustaizko zelai berdeak Iparaldean). Horiez gain, egun garbietan, Ipar aldera begira, Bizkaia eta Araba probintzien arteko mugan kokatzen den "Goikogane" mendia ikus dezakegu.

Juan Cruz Saralegui, Urkabustaizko toponimia gehien aztertu duen pertsonak, esaten duenez, "Alto del Corral" izena, 1791 urtean azaltzen zaigu lehenengo aldiz idatzizko testuetan. Baina, aurretik (eta osteko dokumentu batzuetan ere) "Mota de Estuñagan" dugu benetako izena ("Ystuniagana" 1491n). Hau da, "Ostuño"-ren gainean dagoen altua (gaur egun, Ostuño-ko tokian, Urkabustaizko Udal-igerilekuak eta Futbol zelaia daude).

"El Alto de Ondona" mendia "Mota de Estuñagan"-en ondoan dago. Hain zuzen ere, Ondona izeneko herriaren alboan. Gaur egun hiru baserri basterik ez dituen herririk hau, XIII. mendean "Undona" izenarekin azaltzen zaigu idatzita. Ondorioz, gure arbasoek, alboko mendiari "Undiagan" edo "Unduagan" izena eman zioten, eta horrela aurki dezakegu testu zaharretan.

Urkabustaizen, ondoko mapan ikus daitekeenez, hainbat toki-izen daude esanahi honekin. Baina nahiko arruntak dira inguruko Zuia, Koartango edo Amurrio udalerrietan ere.

Izan ere, gai hauetan adituenetariko bat den Enrique Knörr-ek azaltzen duenez, Arabako



mendebaldean "-gan" edo "-gana" bukaerarekin hainbat toponimo daude. Aldiz, Arabako ekialdean, "-gain" bukaerakoak nagusitzen dira. Honen ustez, egoera honek (eta beste toponimoen antzeko egoerak) Araban euskalki desberdinak izan zirela frogatzen du.

Toponimiaren inguruan, herriaren jakintzak eta antzinako dokumentazioak egundoko ondare historiko-kulturala utzi digute. Tamalez ondare hau arrazoi askorengatik galtzen ari gara (nekazal ihardueren uztea, izen berriak, bizimodu "hiritarragoa",...). Baina egia esan, toki-izenek, sarritan jakingura, interesa eta eztabaida pizten dute: zelan esaten diren, non kokatzen diren, eta antzeko eztabaidak ohikoak dira.

Ez da batere erraza zehazki esatea toki baten izena hala edo hola dela. Izan ere, toki batek izen bat edo bestea jaso dezake hainbat baldintzaren eraginez, besteak beste, idazlea, honek inguruaz, tradizioaz, hizkuntzaz duen ezagutza, unea, jardura...


Toponimiak eremu zabala eskaintzen digu gure historia, kultura, ingurunea edo ohiturak ezagutzeko eta ikertzeko; beraz, merezi du berreskuratzea eta mantentzea.

© gustavo barron eta geu aldizkaria

bibliografia

- Barrenengoa, F. (1989): Onomástica de la Tierra de Ayala, Toponimia. tomo 2
- Gonzalez Salazar, J.A. (1989) Cuadernos de toponimia 6. Toponimia menor de Añana. Diputación Foral de Álava, Vitoria Gasteiz
- Gonzalez Salazar, J.A. (1989) Cuadernos de toponimia 7. Toponimia menor de Zuia. Diputación Foral de Álava, Vitoria Gasteiz
- Knörr Borrás, E. (1985). Para una delimitación etnolingüística de la Álava antigua. Ensayo de cartografía a partir de pruebas toponímicas. En La formación de Álava-Comunicaciones. Tomo II. Diputación Foral de Álava, Vitoria Gasteiz.
- López de Gereñu Galarraga, G. (1989). Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses. Euskaltzaindia. Bilbao.
- Olabarria Sautu, J. (1978). El Valle de Zuia. Caja de Ahorros de Vitoria.
- Portilla, M. (1995). Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria: Cuartango, Urkabustaiz y Zigoitia. Fundación Caja Vital Kutxa Fundazioa. Vitoria-Gasteiz.
- Saralegi Díez, J. C. (2000). Toponimia actual e histórica del municipio alavés de Urkabustaiz. En Actas de las II Jornadas de Onomástica, Orduña, septiembre de 1987/II. Onomastika Jardunaldien Agiriak, Orduña, 1987ko Iraila. Euskaltzaindia. Bilbao.
- Parroquia de Urkabustaiz-Koartango. Libro de Defunciones de Uzkiano de 1856.
- Junta Administrativa de Izarra. Apeos y lindes de la Comunidad de Altube. (1846)

NEREA LEKUONA




kustomizatutako diseinua

Hogeita zazpi urteko diseinatzaile gasteiztar honek Euskal Herri osoa ezezik, Estatu espainoleko leku eta txoko gehienak bisitatu ditu artisautza azokaz azoka. Nerea Lekuonak uda luzeak pasa ditu Murcia, Albacete, Asturias, Galizia eta abarreko zerrenda bateko tokietatik tokietara bere sorkuntzak salduz. Egun, berriz, Gasteizen dago egitasmo berri bati ekiteko asmoz: “Orain informatizatzen ari naiz diseinuaren kontua dela eta; egia esateko lanbide honetan dena arriskatzten duzu eta gutxinaka-gutxinaka hasten zara, egiten duzuna ea norbaiten gustukoa den eta zugatik apustua egiten duen”.

“El Foc” izenez ezagutzera eman zuten Nereak eta beste bi lagunek euren burua artearen munduan. “Lokal bat geneukan eta bertara birziklatutako gauza ugari eramaten genituen gero gure sorkuntzak egin ahal izateko”. Hirurak utzitako udak gogora ekartzen ditu Nereak, “asko bidaiatzen genuen eta primeran pasatu izan dugu”. Antzerkia ere egin du gasteiztar honek, baita kolaborazioak argazkilaritzan, eszenatokiatarako eta eszenografiaren ere, “hori dela eta garai batean ‘La Sónica Foc’ deitu ginen, ‘La Sónica’ taldekoekin antzerkigintzan aritzen ginelako. Esaterako, larunbateko Alde Zaharreko merkatuan, baita Sobradun-entzat lan eginez ere”.

Motxila eta gurditxoa hartuta, bakarrik bada ere, egun Nereak bidaiatzen jarraitzen du. “Lagun batek alaba izan zuen eta Agurainen bere denda ireki zuen ‘El Foc’ izenarekin. Beste lagunak zirkoaren bidari ekin zion eta akrobata izan nahian dabil”, azaltzen du gazteak. Bere lanari dagokionez, kamisetak eta osagarriak, hala nola, karterak eta poltsoak, batik bat egiten dabil Nerea Lekuona. “Niri gustatzen zaidana arropari nire ukitu pertsonala ematea da, leku



batetik moztu, margotu beste aldea, hots, arropa eraldatzea", azpimarratzen du. "Nire ametsa norbait etortzea eta 1.000 praketako stock-a kustomizatu ahal izateko aukera eskaintzea da". Nerearen sorkuntzaren adibideetako bat ikusi nahi izanez gero lbarrondón eta Artium-en salgai dituen idunekoen bilduma da aipagarri. "Zelanda Berritik ekarritako maskor polit eta erakargarriekin egin nituen. Argi daukat nire sorkuntza erosle onenari saldu behar diodala, hori beti".

-Zertan esango zenuke desberdintzen dela zuk egiten duzuna merkatuan egon ohi diren gauzetatik?

-Beti testuingurutik ateratako objektuak dira nik erabiltzen ditudanak. Kamiseta normalak erosten ditut eta gero kustomizatzen ditut, hots, moztu, kremaileak jarri, ukondokoak erantsi... Denak dira bakarrak, ez dago bat bera ere errepikatzen dena. Esaterako, umeentzako prakekin poltsoak egiten ditut. Behin, Bilboko larrudenda batean moztzen ari ziren txamarren soberazko zatiak erosi genituen, ehun bat kilo larru. Orain poltsoak egiten ditut horrekin. Modari

aurea hartu behar diozu. Ni neu egiten dudanaren erakusgarri naiz.

-Nola bururatzen zaizkizu zure arropa eta osagarriak gauzatzeko ideiak?


Ikusten dudanatik ihes egiten saiatzen naiz, hori baita modan egongo dena eta zuk horrezkero egunero kontsumitzen ari den horri aurea hartu behar diozu. Diseinatzaileak datorren denboraldirako ari baitira sortzen... Gertatu izan zait burutapen bat izan eta ondoren erakusleahoetan ikustea... Gertatzen dena da batzuek baliabide falta daukagula, beste batzuek ideia falta duten bitartean.

-Osagarriak eta arropa ez ezik, tatuajeak ere egin izan dituzu? Benetakoak?

Ez, ez, ezta pentsatu ere. Ni ez naiz inor norbaiti zerbait bizitza osorako tatuatzeke, ondoren gainera damu dadin. Hennaz egiten ditugu, betidanik, azoketan eta abar, eta pentsatzen dut nahiz eta orain nagusiki diseinura dedikatu, tatuajeak egiteari ez diodala inoiz utziko.

Naturaren isladak

Belatz handia (*Falco peregrinus*)



EKLIPSEA 99

testua eta argazkiak: xabier errasti, 'jerras'
(geu-k itzulitako testua)



gun guztia trenean Bulgaria zeharkatzeko.

Hiru ordutako itxaronaldia Grezia eta Bulgaria arteko mugan; bi herrialdeetako poliziak bagoietan sartu eta pasaporteak eta bisatuak eskatzen zituzten bitartean, gauak ihesi egin zigun eta egunsentiko lehen argi izpiekin, berde koloretako muino eta arto lautada leunez betetako lurra gure begien aurrean esnatzen zihon.

Segituan horma zurietako mendiak zeharkatzen lagundu nahi ziguten ibaiak topatu genituen, eta adreilu eta egur zaharrek herri txikiak aurkeztu zizkiguten.

Trena gelditzen zen higatutako eta herdoildutako gorri eta urdin koloreko beste bagoi batzuk pasatzen uzteko, eta geltokietan jendea igotzen zen, euren "istorio" pertsonalekin.

Danubioak, ilunabarrean, bere burdinazko zubiaren gainetik Errumaniara zeharkatu gintuen. Nekazariak euren etxeetara bueltatzen ziren zaldi-gurdien gainean, lan egun baten ostean, eguzkia sorbaldan zutela.

Gaueko hamaikak aldera Bukarestera heldu ginen. Bertan Georgek itxoitzen zigun, eta senide bat bailitzan, bildu eta bere etxeraino eraman gintuen bere autoan. Ingelesa telebistako filmetan ikasi zuen, ikaslea zen eta uda partean soldata apur bat irabazten zuen turistekin. Hurrengo egunean tour txiki bat egin genuen berarekin, Errepublikako Etxea ikusi genuen eta geltokira eraman gintuen ondoren, Riminici-Vulceara zihon trena hartzeko, gure helmugatik gertu eta eguzki eklipsea ikusteko bi egunetara baino ez.

Gure konpartimentuan hiru gazte errumaniar eta senar-emazte bat zihozten. Segituan barrezka ginen, italiar eta gaztelera arteko nahasketa bat hitz eginez, bagoian abesten zihozten beste gazte batzuen gitarra eta harmonika eta korridorean bidaiatzen zuten bi ahateen oihiak entzunez.

Artoz eta belarrez betetako paraje leun eta berdea zeharkatu genuen. Ekiloreek eguzkiari so egiten zioten...

Ruminici-Vulcea prest zegoen minutu apur batzuetan probintzia arrunt batetik munduko arretagunea izatera pasatzeko. Eklipseak herritarren lasaitasuna asaldatu zuen, gauetan herri dantzak

egiten zituzten taldeek eta musika modernoa eskaintzen zuten hainbat ikuskizunek; kaleak artisauz beteta zeuden eta karpetan haragi frijitua ("friptura") eta garagardoa saltzen zuten.

Harrituta zeuden hara heldu ginen pertsona desberdinak ikusita (japoniarrak, astrologoak, brasildarrak, telebistako unitate mugikorak, bidaiariak...), eta jakinmin eta harrotasun puntu batekin begiratzen ziguten. Astroek erabakia zuten eurek anfitrioiak izatea, eta horregatik, ahalik eta hobekien egiteko prest zeuden.

Maria andrearen etxean egin genuen lo, izaera irekia zuen emakumearen etxean. Txikia eta lodia, asko oihukatzen zuen eta barre egiten zuen, ulertuko bagenio bezala. Eta egia zen ulertzen geniola, bere hizkuntza gure poroetan sartzeko goizegi bazen ere.

Etxea txikia zen, eta oso barrokoa; alfonbrak, tapizak, gortinak, panpinak, koloretako argitxoak. Alabaina, kanpoaldeak "erregimenean" erabilitako arkitektura onenaren ohiko seriotasuna zuen. Hiriarren kanpoaldean zeuden porlanezko eraikinak gozoago egiten ziren bertan zeuden zuhaitz mordoek jolasean eta nagitsu mintzatzen orduak ematen zituzten haur eta zaharrei itzala ematen zitelako.

Baina guk joan behar genuen. Mendian toki bat bilatzen ari ginen, probintzien hiri horretatik 50 kilometroa, non "eklipsearen jarraitzaileekin" topo egingo genuen. Altxoraren bila ibiltzea bezalakoa zen. Pistak Frankel neguan eta udaberrian bidalitako hiru eskutizetan banatuta geneuzkan; gutun horietan, gainera, eskuz idatzitako mapa bat eta errumanierazko oinarritzko hiztegi bat ere bidali zizkigun, bai eta bidaiarako eta alojamendurako aholkuak ere. Hitzordua abuztuaren 11n zen, eta lortzear geunden. Bezperan, ilunabarra baino lehen Horezuko monasteriora heldu ginen.

Agurrak, besarkadak, Kolonbiako azken eklipsetik espero ziren birtopatzeak.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Batzuek elkar ikusiko zuten hirugarren aldia ere bazen.

Kamioneta batek eta Land-Rover batek hautatu lekura eraman gintuzten, eguzkia, ilargia eta lurraren arteko lerrokatzea ikusteko lekura, bailararen goialdean, 1500 metroa.

Hautsez eta harriz betetako errepede baten bi aldeetara bizi ziren herrixkak zeharkatu genituen. Ibaia gure alboetik zetorren ur-goraldiek handitutako ibilgu batetik, antzar eta zerriek, bidearen jabe bailiran, bertatik paseatzen zuten bitartean. Jendeak begi urdin eta irekiekin so egiten zigun, eta lur lehorreko eskuekin, ezezagun batzuk agurtzeko goratzen zirenak.

Basoak, berde eta fresko hartu gintuen, eguzkiak mendi altuenaren atzean ezkutatu nahi izan zuenean. Haize aske batek eguneko azken argiak eraman zituen.

Gau hura grekoz, alemanieraz, japonieraz... eta txileraz ere zirtakatzen zuten suek piztu zuten. Batzuek atsedean hartu nahi zuten, beste batzuok ezin genuen halakorik egin, izarren azpian jarritako "sound system"aren erritmoekin egunsentira arte dantzatu genuelako, are eta indar handiagoarekin goizaldean euria hasi zuenean. Baina, zerua berriro ere urdinez tindatu zen, eta pagoei agian grisa zen atmosfera batean kolorea itzaltzen hasi zitzairen.

**Dena iluntzen doa
egunaren instant batean,
baina zisku zuriak
Ilargia dirudien Eguzki batean
bizirik mantentzen du bizitza.**



ZAPOA, MARINATUA ETA PLANTXAN EGINDAKO TOMATEAREN GAINEAN ERREA, ETA OTARRAINSKEN TXITXI-BURDUNTZIA

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Hezurrik gabeko zapo solomoa	800 g.
Otarraiskak (hiru zatitan)	12 ale
Baratzuri olio	2 c.s.
Itsas gatza	1 c.c.
Ardo zuria	4 c.s.
Salda "motza" (fumet)	4 c.s.

Marinatua:

Baratzuri azukrezatu eta zurituak	4 ale
Perrexil xehatua	1 c.c.
Piperrauts goxoa	
Ezkai aromadun olio	2 c.s.

Tomate erreak:

Tomatea haragitsu eta gorria	200 g.
------------------------------	--------

Itsas gatza

Baratzuri olio	2 c.s.
Piperbeltz zehatua	4 ale.

Egitea:

- Zapo solomoa zortzi zatitan moztu eta apur bat talotu.
- Otarrainsken gorputza zuritu, burua eta isatsa kentzeke.
- Tomatea galdarraztatu; 1,5 zm.-ko lodierako 8 xerratan moztu; gatzaz, piperbeltz zehatuaz eta baratzuri olioaz maneatu.

Marinatua:

- Baratzuriak eta perrexila almerizean zehatu; piperrautsez eta ezkai-olioaz ore bat egin.
- Txitxi-burduntziak egin zotz bakoitzean (4 orotara) bi zati zapo eta hiru otarrainska tartekatuz, marinatuarekin bernizatu eta geroko gorde.

Bukaera:

- Bitartean soten bat eta zartagin bat plantxan berotu su erdian, baratzuri olioaz koipeztatu eta zartaginean tomate zatiak erre, eta sotenean



txitxi-burduntziak (bizpahiru minutu alde bakoitzetik arrainerako eta bat tomaterako), itsats ez dadin zainduz eta buelta bakarra emanez.

Erretilu batera tomatea eta txitxi-burduntziak atera, estali eta arrainaren sotena ardo zuriaz desglasatu azken hau erdian gutxituz; fumet-a gehitu, eta bigundu batzuk gehiago egosi lodi dadin. Azkenik, iragazi.

(geu-k itzulitako testua)

	Buruzagiak	Errekin	Saila	Toka, baduzu	Pl., landare mota
	Santuak	Kaltzio oxido	Ez eme	Momentu	
	Besta				
	* Deitura				
Era galai batez	Heure		Ez zakar		
Kafe saltokia	* Izena		Idi, hitz elkarketan		
				Errep., gorotza	
				Makal, ahul	
Gurdi mota		Kanpo		Fosforoa	Boroa
Era larrian		Kalearen hasieran		Luzera neurria	Beharra
			Karrika		
			Azkena eta lehena		
Metalen erakarlea			Itsusi		
Ogi egilea			Baldintzetan		
		Fruitu mota			
		Bokala			
Indioa	Suari dariona		Gabarra txikiak		

(LUMA) Hitz Gezidunak

***Irudia:** Hile honetako protagonista Gesaltzakoa dugu (1852-1908). Arabar honek euskara bultzatzen lagunduko du bere idazkien bidez eta hainbat argitalpen editatuz, non euskaraz idatziriko zein euskararen inguruko artikulu eta poemak kaleratuko dituen. Arturo Kanpionekin batera, Institutuan Euskara eta Euskal Herriko Historia ikasteko katedrak eskatzen ditu, eta aldi berean, irakaskuntza elebiduna hegoaldeko 4 hiriburuetan. Gasteizen familia honen abizena duen kale bat dago.

Soluzioa: 34. orrialdean

ARTE ETA LANBIDE ESKOLA. ZERAMIKA TAILERRA

Egilea: MARIA ANGELES URZELAI

"EZKUTALEKUA"

Artearen zientziak eta zeramika-esmalteak horma hauen gainean atsedean hartzen dute, sortzeko betetasunean esmaltearen hizkuntza menperatzea ahalbidetzen dute.

Eurek gainezka egiten duen gai arragoa ematen digute, huskerien eta salneurri txikiagoaren truke.

Eurei, beren bularraren adaburuan lurraren esentzia eskaintzen digutenei.

Zu ukitzen dakit bakarrik, begiratzan batzuetan.

Ia itsua naiz kolore buruzuriekiko; zuk itsutu ninduzun, esmaltea.

Ene ametsen lagun.

Lana egiten duzun bitartean, sentsazio berriak antzematen dira, zeinak era desberdinen eta desiaturiko koloreen osatzearen bila doazen.

(geu-k itzulitako testua)



Ezaugarriak

Ertz biziez eta ehundura desberdinez hasi eta gune leunagoekin amaitzen den dorre irregularra.

Altuera: 1,30 m. Diametroa: 50 zm. Temperatura altuko CH buztin erregogorrarekin egina dago eta oxido eta gardenekin tonu mateetan esmalteztatua. Data: 2002-2003 ikasturtea.



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Aurtengo euskarazko eskaintza kulturala nabarmen zabaldu da Gasteizen Geu Elkartearen ekimenez sortutako Gasteizko Irakurle Klubari esker. Hilero literatura atsegin duzuen guztiontzako aukera berri eta interesgarri bat duzue hau. Iban Zaldia idazlea gidari, urritik aurrera abian jarri egitasmo honek zuen harrera ona jaso duen heinean, ekainera arteko ekintzak aurreikusten ditu. Gogoratu ekintza irekia dela eta eraman behar duzuen gauza bakarra dela entzuteko, eztabaidatzeko eta hitz egiteko gogoia, baita -nola ez- mintzagai den liburuaren irakurketa ere. Animatu eta pasa zaitez Gasteizko Irakurle Klubetik!

Gogoratu, hilean behin, hileko azken asteazkenean, 20.00etan, Pintore kaleko 13an dagoen Hikaateneon!!

josune veleaz de mendizabal

Anjel Lertxundi

Hasier Etxeberriaren etorrerak eman zion hasiera berezia Gasteizko Irakurle Klubari urrian. Ondoren, urtarrilean, Aingeru Epaltza, "Rock and Roll" bere liburuari buruz aritzeko, guretik ere pasa zen. Azkenengo bisita, Anjel Lertxundirena, iraganeko martxoaren 26an; Orioko idazle oparoarekin hitz egiteko parada izan genuen, eta hona hemen Geu-ko irakurleentzat kontatu ziguna.

-Irakaskuntza, kazetaritza, kritika, gidoigintza, zine-zuzendaritza lanetan ibilitakoa zara. Zeinetan ibili zara gusturago?

Literaturan. Egin ditudan bestelako lanek literaturarekin zerikusia izan dute edo literatura egiteko ogibideak izan dira.

-Zure literaturari dagokionez, eskaintza ugari aurki dezake irakurleak (haur nahiz helduentzat, saiakera, bilduma, eleberria...). Zein da zuretzat idatzitako guztiaren artean liburu atseginena eta zergatik?

Kontu zaila da oso. Idazle batek nekez esan dezake zein duen maiteena, ia liburu guztiei aurkitzen die-eta, urteak pasatu eta gero ere, zera estimagarriren bat. Nire kasuan, badakit euskal publikoak zenbat maite duen "Otto Pette". Esan dezadan neuri ere

gustatu gustatzen zaidala, besterik ez bada ere, bost urte egin nituelako liburu horren jira-bueltan. Baina idazle batek jaio berria izaten du, normalean, libururik kuttunena, zaindu eta begiratu egin behar duelako. Beraz, esan dezadan "Zorion perfektua" eleberria dela nik orain zaindu eta mimatzen dudana liburu.

-Pasa den hilean "Mentura dugun artean" liburuaz mintzatzera etorri zinen Gasteizko Irakurle Klubera. Zer-nolako esperientzia izan zen?

Irakurleekin hitz-aspertua izateko aukerak, gutxi izaten badira ere, denak dira interesgarriak. Zure irakurleek aurpegia eta izen-abizenak dituzte. Baina, batez ere, irakurleek ahotsa dute: zure liburuarekin izan duten harremana kontatzen dizute, hainbat pasarte komentatzen, aztertzen eta kritikatzeko dizkizute eta zu non konturatzen zaren, praktikan konturatu ere, zure bakardadean idatzi zenuen liburu hura ez dela jada zurea.

-Ekimen honen berririk bazenuen? Zenbat jende bildu zen eta zeri buruz aritu zineten?

Ezagutzen nuen, bai, bertan parte hartu duten hainbat adiskideren bidetik. Iban Zalduak deitu zidanean ez nuen zalantzarik izan, lehentxeago esan ditudan arrazoiengatik eta baita Iban

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA EGITARAUA

Maiatzaren 7,
asteazkena
Jane Austen,
Harrotasuna eta
aurrejuzkuak. Ibaizabal,
1996.

Maiatzaren 28,
asteazkena
Inazio Mujika, Azukrea
belazeetan. Erein,
1987.

Ekainaren 25,
asteazkena
Joseba Sarrionandia,
Lagun izoztua. Elkar,
2001.

LEKUA: Hikaateneoa,
Pintore kalea 13
(alde zaharra).
ORDUA: 20:00.
DERRIGORREZKOIA:
liburua irakurrita
ekartzea (eta hitz
egiteko gogoia, noski).

Zaldia egiten ari den lana estimatzen dudalako ere.

Ez dakit zehatz zenbat bildu ginen (zortzi-hamar bat), baina denek erakutsi zidaten, beren aurpegiaz gainera, beren ahotsa. Eta hori estimatzekoa da.

"Mentura dugun artean" liburuari buruz aritu ginen bereiziki; entsegu horretan ageri den hainbat hausnarketaz eta baita euskara literarioari buruzko hainbat auziri buruz ere.

-Zertan ari zara gaur egun? Etorkizun hurbilerako libururik bai?

Zer esango dizut? Idazle batek beti ditu esku artean hainbat testu... Neu ere hor nabil batetik tira, beste hari begira, ea zein testu egoskortzen zaidan kontuak eskatuz: "Hi, txo, neure txanda duk!". Eta hori gerta dadinean bakarrik esan ahal izango dut proiektu zehatz bat dudala esku artean.

**literatura
liburua**

Uda betiko balitz

Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi
Bilduma: Literatura 229
Orriak: 164
Salneurria: 11,5 euro
Data: 2003ko apirila

Bere azken urteetako ibilbideari jarraituz, fikzioa eta oroitzapena nahasten dituen obra bat idatzi du Xabier Mendigurenek. Oraingo honetan udalekuen girora eramango gaitu, batetik, eta trantsizio politikoaren garaira, bestetik, hainbat adoleszenteren eskutik. Anekdotak pertsonala gaindituz, bizitzarekiko sentimendu batzuk transmititu nahiko lituzke egileak, eta irakurlearengan emozio horiek berritu.

Poza da, izan ere, liburu honetako sentimendu nagusia, literaturan gai ilunagoak ikusten ohiturik gauden arren: mina, tristura, tragedia... Bizitzeko grinaz eta gogoz beterik daude bertako protagonistak, hamabi, hamalau, hamasei urteko neska-mutilak, bizitza horrek pozeekin batera hainbat gazi-gozo eta atsekabe ekarri arren.

76an hasi eta 80ra bitartean hedatzen da nobela honetako denbora, hainbat udatan barrena; eleberri korala da berez, pertsonaia bakar batzuen ordez gazte-talde osoa baita protagonista, apurka eta urtez urte aldatzen ikusiko duguna, eta gaztetxoaren garapenarekin batean, zeharka bada ere, nabarmen ageriko da gizarteak berak aldi horretan izandako bilakaera. Alde horretatik, aipagarria izan liteke urte horietako zenbait gertaeraren



oihartzuna: 78ko San Ferminetako eta Errenteriako gertaerak, Lemoizko zentral nuklearraren ingurukoak, autonomia martxan jartzeari buruzkoak...

Mikrokosmos bat da Udalekua, bere baitan mundu bat biltzen duena eta aldi berean kanpoko munduaren ispilua. Mundu partikular horren hainbat estampa eta irudi eskaintzen digu idazleak (igerilekua, altxoraren jokoa, txangoak, dantzaldiak, kanpamenduko sua, bihurrikaria eta liskarrak...); idazkera doi eta arinez eginak daude postal horiek, baina, beraiekin tartekaturik, mutiko batek idatzitako gutunak aurkituko ditugu, hari narratiboaz gainera liburuari ahozko euskararen grazia eranstean diotenak.

Xabier Mendiguren Elizegi (Beasain, 1964). Filologian lizentziatua eta editorea. *Gazteentzako liburuak:* Tangoak ez du amaierarik, Harrika, Patakon, Irakasle alu bat, Obsexuen kluba, Kanibalaren kaiolan, Txakurraren alaba. *Helduentzat, berri:* 16 ipuin amodiozko, Hamalau, Errautsen distira, Bekatuaren itzala, Berriro igo nauzu, Gure barria 1975, Nerabearen biluzia, Errekatetako koademoa.

(elkarlanean argitaletxearen eskutik)

Literatur lehiaketa

Maiatzeko galdera:

Joxean Sagastizabal idazleak idatzi azken bi liburuak zeintzuk dira?

Bidali erantzuna posta arruntaz edo elektronikoz (geugaste@grn.es)

Apirileko galdera:

Zelan esaten da euskaraz "esta es la historia de nunca acabar"? (halakoen erantzunak gure irratsaioan, GEUJIRAN, entzungai)

Irabazlea: ISABEL SANTAMARIA DURANA.

Zorionak! [irabazitako liburuak: Unai Elorriagaren Van't Hoffen ilea (elkar)]

Erantzuna: Amaierarik gabeko soka

**geure
gomendioz**

kultur errota

Geu elkartearen eskutik

Labrit

Maiatzaren 27an, asteartea

Parral-en, 20.30etan

geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

**Maiatzaren 18an
SAN TIRSO (1329),
PEÑA DEL LEÓN (1389)**

Informazioa: 945146256 (Eduarne)

Irteera tokia:

Lovaina plazan, goizeko 9.00etan

geu azoka

deitu edo idatzi zure iragarkitxoa argitaratzeko!

(iragarkiak aiez ale berritu behar dira)

Salmentak, alokairuak

- **Judimendi auzoan** pisua osatzeko pertsona baten bila nabil. 225 euro hilero. Tfnoa: 945282131 (arratsaldez-gauez)

- **Alokairua udarako**, oporraldietarako, VERAn (Almeria): apartamentu bat errentan gune naturista batean (jantzita: telebista, garbigailua...); terraza eta igerilekua dauzka. Hondartza naturista. 657739425

denbora-pasaren soluzioa



(31. orr.)

	◊	K	◊	E	◊	A	◊	B	◊
	S	A	K	R	A	T	U	A	K
	◊	P	A	R	R	A	N	D	A
◊	G	◊	H	I	R	E	◊	L	E
K	A	F	E	T	E	G	I	A	◊
◊	L	E	R	A	◊	A	T	◊	P
L	A	R	R	I	K	I	◊	K	A
◊	I	M	A	N	A	◊	Z	A	T
O	K	I	N	A	◊	B	A	N	A
◊	I	N	◊	K	E	A	◊	A	L

*Fermin Herran



KOMUNIKABI DEAK
HAUTESKUNDEAK GORA
ETA HAUTESKUNDEAK
BEHERA DAUDENEZ, JOKO BAT
PROPOSATZEN DIZUT:
EA, HEMENGO JENDEAREN
ARTEAN BI POLITIKARI
PROFESIONAL DAUDE.
NON?



OSO ONDOI
ERANTZUNA 7 ETA 19A DA.
DEMOKRAZIA PARLAMENTARIOAREN
TEST PSIKOTEKNIKA GAINDITU
DUZU, ZORIONAKI!



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA



Berrikuntza oinarri hartuta hezte eta prestatzea

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin itundutako ikastetxea
- Arabako Lanbide Heziketako Partzuergoko kidea
- Lanbide Heziketako ikastetxe integrala
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte

- Segurantzaren Sailak babestutako ikastetxea
- Hobetuzek eta INEMek homologatutako ikastetxea
- Egailan (Langai) ikastetxe laguntzailea
- HETEL eta UCARA elkartutako ikastetxea
- Caja Vital Kutxako Gizarte Ekintzan sartua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



NIEVES CANO IKASTETXEA

D.B.H. (A, B eta D ereduetan)

ARRIAGA IKASTETXEA

D.B.H. (A, B eta D ereduetan)

Lanbide Heziketa Zikloak

	Ikastetxea	L.H. Zikloa	Ordu kop.	
ERDI MAILA	ARRIAGA	• Makinaria eta Linea Sareen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa	2.000	
		• Ibilgailuen Elektromekanika	2.000	
	MOLINUEVO	• Administrazio Kudeaketa	1.300	"D" ereduetan
		• Ile-Apalketa	2.000	
		• Erizain Laguntzaileen Zainketak	1.400	
	NIEVES CANO	• Mekanizazioa	2.000	"D" ereduetan
	MENDIZORROTZA	• Taberna eta Jatetxe Zerbitzuak	1.400	
		• Sukaldaritza	2.000	
		• Gozokintza eta Okintza	1.400	

Batxilergoak

ARRIAGA IKASTETXEA

- Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa

MOLINUEVO IKASTETXEA

- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa (A eta D ereduetan)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa (A eta D ereduetan)

NIEVES CANO IKASTETXEA

- Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa



GOI MAILA	ARRIAGA	• Informatika Aplikazioen Garapena	2.000	
		• Informatika Sistemen Administrazioa	2.000	
		• Produktu Elektronikoen Garapena	2.000	
		• Automozioa	2.000	
		• Industri Ekipoen Mantenimendua	2.000	
		• Erregulazio eta Kontrol Automatikoaren Sistemak (Elektronika)	2.000	
	MOLINUEVO	• Telekomunikabide eta Informatika Sistemak	2.000	
		• Administrazioa eta Finantzak	2.000	Hirueleduna euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez
	MOLINUEVO	• Idazkaritza	2.000	
		• Garraioaren Kudeaketa (Logistika)	1.300	
		• Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	2.000	
		• Estetika	1.400	
	NIEVES CANO	• Animazio Soziokulturala	2.000	
		• Mekanizazio Bidezko Ekoizpena	1.700	
		• Proiektu Mekanikoen Garapena	2.000	
		• Diagnostiko Klinikoaren Laborategia	2.000	



Diocesanas-Arriaga

Pozoa kalea, z/g.
Tel.: 945 010 110
Faxa: 945 010 119
e-mail: arriaga@diocesanas.org
01013 VITORIA - GASTEIZ



Diocesanas-Molinuevo

San Ignacio kalea, 6
Tel.: 945 010 120
Faxa: 945 010 129
e-mail: molinuevo@diocesanas.org
01001 VITORIA - GASTEIZ



Diocesanas-Nieves Cano

Nieves Cano kalea, 10
Tel.: 945 010 130
Faxa: 945 010 139
e-mail: nieves_cano@diocesanas.org
01006 VITORIA-GASTEIZ



Diocesanas-Mendizorrotza

G^a. Salazar emp., z/g.
Tel.: 945 010 140
Faxa: 945 010 149
e-mail: mendizorrotza@diocesanas.org
01007 VITORIA-GASTEIZ

geu aldizkariko

25 lagun
& 25na harpidetza &
25 sari



1. harpidetza maratonia

MARATOIAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK:

-25 lagunek bakarrik parte har dezakete.

-Izena ematea: MAIATZAREN 12tik 28ra bitartera. Nola? Telefonoz (945222153) edo e-mailez (izena emateko epe barruan, lehenago ez).

-Maratoia noiz hasiko? Izena ematen den momentutik aurrera.

-Noiz amaituko? Ekainaren 30ean.

-Partehartzaileen zeregina: NORBERAK EPE HORREN BARRUAN GEU ALDIZKARIRAKO 25 HARPIDEDUN BERRI EGITEA (urte osoko kuota: 18 euro).

-Egindako 25 harpidetza horiek orri batean entregatu (ordenagailuz idatzita badago hobeto) harpidedun bakoitzaren honako datuak zehaztuz: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta kontu korrontearen 20 dijitoak (Harpidedun berriak zozketa batean sartuko dira).

SARIAK:

PARTEHARTZAILE GUZTIEK ESKURATUKO DUTE SARIA, BAINA MARATOIAN LEHENA DENAK **1. SARIA** ESKURATUKO DU:

***1. SARIA:** ASTEBURU BAT MURUAKO "GOIKURI" NEKAZAL-TURISMOAN, GOSARIA BARNE, 2 LAGUNENTZAT (sukaldea erabiltzeko aukerarekin) + gainontzeko oparietako edozein, aukeran.

***GAINONTZEKO 24 SARIAK** HONAKOAK DIRA (ZOZKETA BIDEZ BANATUKO DIRA PARTEHARTZAILEEN ARTEAN):

*PORTALON JATETXEAREN eskutik, 2 AFARI, 2 lagunentzat

*2 KASET-STEREO-CD

*3 KUTXA ARDO ONDU (KRIANTZA), BESA bodegaren eskutik

*4 LOTE LIBURU & CD, Casa del Libro eta Arriaga liburutegien eskutik

*2 TELEFONO MUGIKOR

*2 ARGAZKI MAKINA

*2 ERLOJU

*2 MOTXILA

*ZINEMARAKO 10 SARRERAKO 3 BONO

*150 EUROKO 2 SARI



argi ibili eta izena emateko ez bitan pentsatu, bestela txanda galduko duzue!!!